

ESKOLA HIZTUN BILA

2014/15



ESPERIENTZIAK: zonaldeko tailerrak

GAIA	Esperientziak
A) IKASLEAK: gaitasuna. Ahozkoa	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen ahozko erabileran eragin nahian - Mintzamena lantzeko prestakuntza, plangintza eta praktika - Ahozkoaren sormena: zergatik landu bertsolaritza
B) IKASLEAK: gaitasuna eta kontzientzia	<ul style="list-style-type: none"> - Kasua dago, beste dokumentu batean.
C) IKASLEAK erabilera	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen ahozko erabileran eragin nahian - Ikasleen erabileran eragiteko prestakuntza eta ondorengo aplikazio-plangintza - Egin dezagun euskaraz jolastorduan - Durangoko liburu eta disko azokara bisita - Ikasleen tailerrak BHn
D) IKASLEAK motibazioa eta jarrerak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen erabilera motibatzeke prestakuntza eta ondorengo aplikazio-plangintza - "Eusliderrak " - Euskararekiko jarrerak aktibatzeke prozesuak - Motibazioa bultzatzeko estrategiak (DBH, EBETE)
E) IRAKASLEAK hizkuntza prestakuntza	<ul style="list-style-type: none"> - IRALE ikastaroak: euskal kurrikuluma, TELP, hitanoa. - Akatsak zuzendu. - IRALE H ikastaroak - Hauetaz gain, bada Kasu bat, beste dokumentu batean.
F) IRAKASLEAK hizkuntza erabilera	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleok erabileraren eredu eta eragile - TELP ikastaroa, ikasleen erabileran eragiteke estrategien bila
G) IRAKASLEAK: Parte hartzea	<ul style="list-style-type: none"> - Irudimenezko bidaia - Urtxintxarekin jolasak ikasten. - Denok gara hizkuntza irakasle: Bizkaieraren ezaugarriak lantzeko ariketa sorta.
H) GURASOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Gurasoak irakasleon bidean - Gurasoak euskara ikasten - Gurasoen foroa - Motxila ibiltaria

GIDOIA

HH-LMH ETA DBHKO TALDEAK

Esparrua	GIDOIA
<p>A) Ikasleak, gaitasuna: Ahozko KG</p> <p>Ahozko Komunikazio Gaitasuna garatzeko lanak eskolan. Egoera eta genero formalei zein informalei dagokienez</p>	<p>Ikasleekin, gelan, zer egin...</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleek entzuteko eta hitz egiteko aukera gehiago, askotarikoagoak eta aberatsagoak izan ditzaten • Ahozko genero formalak lantzeko • Lagunarteko genero informalak lantzeko <p>Gelan, abagune hauetan, zer egin ahozko komunikazioak toi gehiago izan dezan eta mintzamina lantzeko</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gelan elkarreraginerako edo hitz egiteko uneak sortu • H² arloan, Komunikazio gaitasuna berariaz landu • Gainerako arloetan, komunikazioa gaitasunari ere erreparatu • Arloaz gaindikoetan eta osagarrietan, komunikazio aintzat hartu • Jolas orduetan, dinamizazio lanak • Orduz kanpokoetan, , dinamizazio lanak <p>Honelako lanketa bat egingarri izan dadin egin beharko genituzkeenak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakasleriaren sentiberatzea eta prestakuntza • Hizkuntza arloko curriculumean eta gelako programazioetan • Gainerako arloetako curriculumean eta gelako programazioetan • Ikastetxearen antolaketa: ikasle taldeetan, irakasleak
<p>B) Ikasleak, gaitasuna: G osoa + Kontzientzia</p> <p>Zer egin eta nola jokatu Ikasleek euskarazko Hizkuntza Komunikazio Gaitasun osoa gara dezaten, baita haien gaitasunaren kontzientzia ere, eta beraien ikas prozesuaren jabe bihurtu daitezten?</p>	<p>Zer egin gaitasun osoa garatzeko aldera?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaitasun 'osoa', zer da? <ul style="list-style-type: none"> ○ Ulermena eta adierazmena; idatziz eta ahoz. Hotsa. Entzumena, irakurmena, idazmena, mintzamina eta solasean aritzeko gaitasuna? ○ Ikasketetarako, lan mundurako, pertsonarteko harremanetarako eta harreman instituzionaletarako? Egoera eta erregistro formalak zein lagunartekoak ○ ... • Gaitasun osoa garatzeko, nola jokatu... <ul style="list-style-type: none"> ○ Hizkuntza arloan ○ Gainerako arloetan ○ Arloz gaindiko jardueretan ○ ... <p>Zer egin gaitasunaren kontzientzia garatzeko eta ikasleek ikas-prozesuaren jabe bihurtu daitezten?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaitasunaren kontzientzia lantzea komeni? Hala balitz, zer egin eta nola... <ul style="list-style-type: none"> ○ Auto-ezagutza eta kontzientzia garatzeko; hori da, egindako aurrerapenaren kontzientzia izan dezaten: zenbat aurreratu duten, zertan, zerk balio izan die aurrera egiteko... ○ Auto konfiantza eta auto-estimu linguistikoa lantzeko. Eta porrota eta ezintasunaren sententzioari aurre hartu edota aurre egiteko ○ Aurreratzen jarraitzeko nahia elikatzeko ○ Aurrerabiderako urratsak eta baldintzak irudikatzen. ○ Hizkuntza(k) ikasteari begirako ikasleen planak (pertsonalak zein talde-planak) prestatu eta garatzeko

<p>C) Ikasleak, erabilera:</p> <p>Talde lanean edo lan kooperatiboan dihardutenean ikasleen arteko elkarrekin euskaraz eman dadin zein estrategia baliatu? Nola jokatu?</p> <p>Ikasleak, erabilera: Zer egin eta nola jokatu Ikaslek, gelan, hitza izan dezaten? Hori da eskaintzeko eta dinamizatzeko erabilera-egoera asko, askotarikoak eta gero eta konplexuagoak? Eta gelaz kanpo?</p>	<p>Zer egin eta nola jokatu Ikaslek hitza izan dezaten? Hori da erabilera-egoera asko (askotarikoak eta gero eta konplexuagoak) eskaintzeko eta dinamizatzeko?</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ikasgelan: <ul style="list-style-type: none"> ○ Ikasleei hitza eman (eta parte hartzen lagundu) talde handiko solasetan ○ Lan kooperatiboan eta talde-lanean dihardutenean, harremana euskaraz eman dadin ● Gelaz gandi ikasteko jardueretan (gelen artean...) ● Jolasaldian, eta abar (esperientziak aztertzean horretaz hitz egin da) <p>Honelako guneak sortzeko eta horiei probetxua ateratzeko, neurririk (aldaketarik edo aurrerapausorik) hartu behar honako hauetan...</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Didaktikan, metodologian ● Ikastetxearen, irakasleriaren edota gelaren antolaketan ● Irakasleriaren prestakuntzan eta profesionalizazioan ● Hezkuntza komunitateko gainerako sektoreekiko zein kanpo-eragileekiko lankidetzan
<p>D) Ikasleak, motibazioa eta jarrerak:</p> <p>Zer eta nola? Ikasleak: Euskara erabiltzea errazten ez duten egoeretan, erabiltzaile aktibo izateko behar diren usteak (kontzientzia) eta gizarte trebetasunak (asertibitatea, enpatia, talde-presioari aurre egiteko ahalmena...) zer egin eta nola jokatu</p>	<p>Motibazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Motibatze bideak: atseginarena, lorpenarena.... Zein? Zein mailatan? Motibazio mota hori lantzeko zer egin? Nola? ● Jarrerak: kognizioa, emozioa eta jokabidea: alderdi bakoitza lantzeko zer egin? <ul style="list-style-type: none"> ○ Alderdi kognitiboak: hautematek, usteak, sinesmenak optimizatzeko. Egoera soziolinguistikoarekiko pertzepzioa, hizkuntzarekiko (eta haren balio funtzionalarekiko) gizarte pertzepzioa, erreferentziazko pertsona eta taldeen hizkuntza jokaera, gertuko harreman sareetako hizkuntza arauak eta ohiturak. Hizkuntza aniztasuna ezagutzea eta balioestea, hizkuntzekiko eta haien erabilerarekiko aurreiritziak eta uste ustelak ... ○ Alderdi emozionalak: euskararekiko bizipenak sentimenduak optimizatzeko Bizipen pertsonalak eta talde-bizipen baikorrak ziurtatu. Lotura afektiboa landu Erabiltzeko nahia elikatu: zentzua, onurak... aztertu ○ Jokaerazko alderdiak: ikasleen hizkuntza jokabideak (pertsonala eta kolektiboa) aztertu eta optimizatzeko. Ikasleen ohiko harreman sareetako harremanak sareetako hizkuntza-arauak eta ohituretan eragiteko. Ikasleek hizkuntza jokaera proaktiboa izan dezaten behar diren gizarte-trebetasunak lantzeko (asertibitatea, enpatia, talde-presioari eustea et asertiboa). Erabiltzeko eragozpenak, oztopoak eta zailtasunak hausnartu eta horiei aurre egiteko estrategiak bilatu. Taldearen erabilera ohiturez hausnartu eta hizkuntzaren erabilerarako talde-arauak adostu. ● Eskolan nola antolatu motibazioetan eta jarreraren lanketa <ul style="list-style-type: none"> ○ : non, noiz, nork landu motibazioa eta jarrerak ○ Landu beharreko eta lantzeko modua non islatu: hezp pro, hizk pro, cur pro, gelako programazioak ○ Lanketa hor sistematizatzeko zein ibilbide egin?
<p>E) Irakasleak, Hizkuntza Prestakuntza:</p> <p>Zer egin eta nola jokatu erabaki pertsonal izatekiko erabaki instituzionala izatera igarotzeko; ikastetxean 'Hizkuntza Kalitatea Ziurtatzeko Prestakuntza Plana' izatera ailegatzeko, alegia</p>	<p>Irakasleen hizkuntza prestakuntza:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Erabaki eta eginkizun indibiduala izatekiko, ikastetxeko erabaki izatera igarotzea komeni? Horretara hurbiltzeko urratsak emateko moduan gaude? Zein izan daiteke horretarainoko ibilbidea? ● Hobekuntza Planetako ardatz bat "Garapen profesionala: irakasle-taldeen prestakuntza, irakasle-taldeen premia profesionalak..." izateak, eta Hizkuntza Proiekturako gidetik irakasleen hizkuntza-prestakuntza planaren beharrez hitz egiteak, zerbaitetan lagundu dezake? ● Nola antolatu eta gauzatu ikastetxean 'irakasleen hizkuntza-prestakuntza plana' <ul style="list-style-type: none"> ○ Zer landu plan horren barnean? Hizkuntza Gaitasuna eta Kalitatea ez ezik bestelako edukiak ere? Prestakuntza metodologiko didaktikoa? Interakzio- eta erabilera-egoerak antolatzeko eta dinamizatu ahal izateko prestakuntza? Ikasleekin hizkuntza-jarrerak eta -jokaerak landu ahal izateko prestakuntza? Irakasleok hizkuntza-jarrera eta -jokaera asertiboetan eta proaktiboetan trebatzeko?

	<ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Zer-nolako jarduerak antolatu? <input type="radio"/> Nolako ibilbidea aurreikusi? Denontzako ibilbide bera edo ibilbide egokituak? Egokituak balira, nola artikulatu osagai komunak eta berariazkoak? <input type="radio"/> ...
<p>F) Irakasleak, H^a erabilera:</p> <p>Irakasleok erabiltzaile (ikasleekiko harremanetan eta irakasleon artean) eta erabileraren eragile. Honetan aurreratzeko zer egin eta nola jokatu?</p>	<p>Ikastetxeak erabaki du euskara izango dela komunikazio hizkuntza bai ikasle-irakasleen arteko harremanetan, baita irakasleen artean ere. Gainera ikasleei eskatuko dietela irakasleengana euskaraz zuzentzea eta hauen artean gelan euskaraz aritzea. Erabaki bai, baina zenbait irakasleren hizkuntza-praktikak ez datoz beti bat erabakitakoarekin. Izan ere...</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakasle askok ez dute ikasleei euskaraz aritu daitezen eskatzeko lana hartzen • Batzuek ikasleek gaztelaniaz zuzentzen zatzaizkienean gaztelaniaz erantzuten diete. Edota hainbatetan zenbait ikasleri gaztelaniaz egiten diete, ikasle horiek hobetu ulertuko dietelakoan • Beste batzuek hizkuntza aldatzeko (kode-aldaketa egiteko) joera dute, zenbait gauza adierazteko (komentario gatz eta piperdunak egiteko, esaterako) gaztelania baliatzen dute. • Zer egin irakasle guztien Hizkuntza jokaera koherente eta konsistentea izan dadin <p>* Beren ikasgai euskaraz ematen duten zenbait irakaslek erraz pasatzen dira gaztelaniara, izan lankideekiko une informaletan, izan ikasleekin gelaz kanpo ikasleek haiengana gaztelaniaz zuzentzen baldinbadira, Baita, zenbaitetan, gelan ere ikasleak gaztelaniaz galdetzen baldin badu, edota ‘zenbait ikasle gaztelaniaz azalduz gero hobetu ulertuko dutelakoan’</p>
<p>G) Irakasleak, parte hartzea-implikazioa:</p> <p>Zer eta nola?</p>	
<p>H) Gurasoak, jokaera:</p> <p>Nola eragin guraso euskaldunengan hizkuntza-jokaera konsistentea izan dezaten, hori da ikasleentzako erabilera normalizatuaren eredu izan daitezen</p> <p>Gurasoak, jarrera: Nola eragin guraso erdaldunengan seme-alaben erabileran aurrera egiteko jarrera lagungarria har dezaten?</p>	<p>Guraso euskaldunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eragiteko beharrik? Zeren bila? • Zer proposatu? Zer nolako proposamenak egin edo mezuak helarazi? • Nola eragin? Zein bide eta prozedura? • Azken urteotan hainbat tokitan plazaratu den kezka, zenbait guraso euskaldunen hizkuntza-jokaera funts gutxikoa iruditzen zaielako: seme-alabei txikitik euskara irakatsi bai, seme-alabei euskaraz hitz egin bai; baina gurasoen artean, etxean, eta kalean beste zenbait guraso euskaldunekin ere gaztelaniaz aritzeko joera handia dutela antzeman dute. Pertzepzio eta kezka hori konpartitzen al duzue? Halakoetan eragin beharra dagoela iruditzen zaizue? Hala bada zer egin eta nola? Zer egin dezakegu guraso horiek horien hizkuntza jokaeraren garrantziaz eta eraginaz ohartu daitezen? Zer egin hizkuntza jokaera koherenteagoa izan dezaten? Nola jokatu eskolatik (zein estrategia baliatu) guraso horiengana ailegatu eta gaiak elkarrekin pentsatzen jartzeko? <p>Guraso erdaldunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eragiteko beharrik? Zeren bila? • Zer proposatu? Zer nolako proposamenak egin edo mezuak helarazi? • Nola eragin? Zein bide eta prozedura? <ul style="list-style-type: none"> <input type="radio"/> Etxean euskara balioetsi dezaten <input type="radio"/> Seme-alabek eskolan egiten duten lana eta euskalduntze bidean egiten ari diren ahalegina eta aurrerabidea balioetsi dezaten. Eta ahaleginari eutsi eta aurreratzen jarraitzea ere anima ditzaten. <input type="radio"/> Gelaz eta eskolaz kanpoko giroan euskarazko jardueretan seme-alabak parte hartzea erraztu eta anima dezaten. Eta euskarazko kultura-produktu eta –zerbitzuen kontsumoa sustatu dezaten

- Azken urteotan hainbat tokitan plazaratu den kezka, zenbait guraso erdaldunen euskararekiko jarreraz. Nahi dute, bai, seme-alabek eskolan euskara ikas dezaten, ezinbesteko osagaia iruditzen zaie seme-alaben formazioan; baina iruditzen zaie seme-alabak euskalduntzeko eskolan klase orduetan egiten den lanarekin nahiko dela. Ez dute ikusten gelaz eta orduz kanpoko jarduerak euskaraz egiteko beharrik; eta -are gutxiago- eskolaz kanpo ere (aisialdian, etxean...) euskaraz aritzeko uneak eta guneak bilatzearen beharrik. Areago, zenbaitetan halako proposamenak entzutean, zenbait gurasok beren desadostasuna modu argian eta irmoan adierazi du *“¿En su tiempo libre también? ¡Ya tiene bastantes horas de euskera en la escuela!”* Pertzepzio eta kezka hori konpartitzen al duzue? Halakoetan eragin beharra dagoela iruditzen zaizue? Zer egin dezakegu guraso horiek gelaz kanpo ere euskarazko jardunguneak sortzearen zentzua konpartitu dezaten; hori da proposamenaren zergati-zertarakoak ulertu eta horiekin bat egin dezaten? Nola jokatu eskolatik (zein estrategia baliatu) guraso horiengana ailegatu eta gaiaz elkarrekin pentsatzen jartzeko?
 - **Guraso euskaldunak eta erdaldunak? Dikotomia hori murrizta da: gurasoen tipologia gero eta anitzagoa dugu; besteak beste baditugu**
 - Euskarazko nolabaiteko gaitasuna badutenak: euskara ikasi dute (eskolan edo euskaltegien bidez), horietako batzuk maila txukuna ere lortu dute (Titulua lortu zuten, hizkuntza-eskakizuna duen lanpostu batean dihardute...), baina euskarak ez du toki handirik haien bizitza pertsonalean: seme alabekin ia ez dute erabiltzen (esaldi solte batzuk...) eta bestelako egoeretan are gutxiago.
 - Azken 10 urteotan EAera etorri diren gurasoak, Gaztelania baino mintzo ez zen lurralde batera etorriak zirela uste zutenak. Seme-alabak euskarazko eskolan dituzte, hala egokitu zaielako. Haien eguneroko bizitzan eta ohiko harreman sareetan ez dute euskararekiko inolako hartu emanik, ia-ia ez dute sumatzen ere. Horietako batzuei, seme-alabek euskara ondo jakitea eta erabiltzeko ohitura garatzea, helburu ulergaitza egiten zaie: *“¿Euskara, para qué, si aquí no lo habla casi nadie?”*
 - Familia eleaniztunak, bi gurasoak elebidunak edo eleaniztunak (amak euskaraz eta gaztelaniaz oso ondo daki, ingelesez ere txukun moldatzen da; aitaren lehenengo hizkuntza ingelesa da, gaztelaniaz ondo egiten du eta euskaraz ere moldatzen da. Etxean ingelesez egiteko hautua egin dute (hau bai? Edo ez du merezi,)
- Gurasoak, oro har:**
- Nola bideratu elkarlana edota nola eragin haiengan?
 - Nola jokatu gure proposamenak eta mezuak haienganatzeko?
 - Zer egin eskolak antolatutako saioetara hurbildu daitezten?

A+	IKASLEAK, GAITASUNA: Ahozko Komunikazio Gaitasuna garatzeko lanak eskolan. Egoera eta genero formalei zein informalei dagokienez	
Izena Esperientziaren	EUSKARAREN AHOZKO ERABILERAN ERAGIN NAHIAN	
k aurubelIH	Orokorra:	Zehatzak:
	<ul style="list-style-type: none"> - Euskaraz aritzeko ohitura sortu. - 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek euskara erabil dezatela beraien artean testuinguru esanguratsuetan eta egoera errealetan. Euskara benetako komunikazio hizkuntza izan dadila. - Ikastetxeko antolamenduan hainbat erronkari lotura ematea euskara ardatza izanik eta euskararen erabilera beharrezkoa bihurtuz. - Euskaraz arituz hainbat proiektu/programa (ekologia-jasangarritasuna, IK/KI, tutoretza, ikasleen parte hartzea, ikasleen ekimena, adin ezberdinetako ikasleen arteko elkarreragina, IKT, euskararen erabilera HNP...) landu,
:AURUGNIUTSET	<p>Ardatza: euskara sustatzea</p> <p>Kokatze lana: ahozkotasanari garrantzia ematen urte asko daramate.</p> <p>Euskara bultzatzeko kanpainak egiten dituzte aspaldidanik. Ez da nahikoa. Erabiltzeko ohiturak sortu behar dira.</p> <p>1. Egoera formaletan: ahoz euskaraz aritzeko jarduerak planifikatu. Euskara erabili behar izateko egoerak sortu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Solasaldi dialogikoak ✓ IK/KI dinamikak ✓ ... <p>2. Egoera ez formaletan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Irakasleen artean landuta eta adostuta daude ikasleek erdaraz dihardutenean eragiteko esku-hartzeak. Irakasle guztiek antzera jokatzea da helburua. ✓ Astean bitan jolas-orduan jolas edo joko kooperatiboak antolatzen dira. Joko ezberdinak eginez taldeak sortzen dira, heldu-irakasle baten esku-hartzearekin. Irakaslearen helburua euskarara erakartzeko estrategiak erabiltzea ikasleak gaztelaniaz ari direnean. ✓ Irratia 	

Antolaketa: IPA bidez (ikasleek parte hartzeko antolaketa). Ikasleak parte aktiboak izan daitezten tresna eta mekanismoak eskaini behar zaizkie. Asteko egutegi eta ordutegian guztia txertatuta dago.

Sei batzorde daude osatuta eta aparte elkartzen dira. Geletako ikasle ordezkariak eta irakasle arduradun batek osatzen dituzte. Ostegun arratsaldean elkartzen dira astero. Normalean Lehen Hezkuntzako ikasleak aritzen dira. Hondakinen kasuan HHkoek ere hartzen dute parte ekimenetan baina oso zuzenduta. Gaiaren arabera Lehen Hezkuntzako 1. Zikloko ikasleek ere ez dute parte hartzen. Sei batzordeak (aldatzen joan dira gaiak eta helburuak):

1. Ordezkaritza Batzordea: Eskolako eta geletako arauak. Ingurumena zaintzeko ekimenak. Jai jasagarriak. Orain eskolako pertsonaia ari dira sortzen. 3. eta 6. Maila bitartekoak.

2. Patio-jolasen antolaketa Batzordea. Bost egunetik bi baloi gabeko egunak dira. Patioa espazio hezitzailea izatea nahi da, eta jolas garaiko hizkuntza erabilera eragin. Mota ezberdinetako jolasak proposatzen dira: betiko jolasak, joku kooperatiboak.

Patioan 7 eremu egiten dira. Eremu bakoitzean irakasle bat dago. Ikasleek jolasten duten bitartean eragiten ari da (bere presentziak berez badu eragina eta behar izanez gero eskuhartzea egiten du).

Batzordeak egin behar diren jolas guztiak antolatzen ditu. Batzordekideek irakasten dizkiete beste gelakideei jolasak... Batzorde honetako arduraduna Gorputz Heziketako irakasle bat da. Batzuetan Gorputz Heziketa klasean lantzen edo ikasten dira jolasak.

Batzordeko partaideak (geletako ordezkariak) badute beste material batzuen berri: zer eta non dauden. Material bere garaian osatu zen ikasleek eginiko proposamenen arabera bildu eta prestatuta. Ordezkaririk arduradunek materiala ateratzen dute ikasleen esku egon dadin.

3. Agenda 21 Batzordea. Programako aurtengo gaia elikadura jasagarria denez, horren lanketa bermatzeko baliaitu dute. Proiektuen lanketa erara aritu dira: aurrezagutzak aztertu, zer jakin nahi duten mahai-gainerat, landu, e.a. Lehendabizi Batzordeak lantzen du zer, nola proposatu eta zein jarduera egin eta ondoren geletan egiten da lanketa ikasle guztiekin. Gurasoen proposamen-ekarpenak ere egon izan dira.

4. Aniztasuna. Elkarbizitzarako Batzordea. Bertan gaiak lantzen dituzte eta geletan zer jorratu proposatu, jarduerak eta dinamikak zehaztu eta geletara eraman eta bideratu.

5. Irratia. Ikasleen ahozko erabilera bultzatzeko

6. Hondakinen jasoketa. Hondakinak bereizten direla ziurtatu, dagokion tokietara eraman. Ikasle nagusienek txikienekin egiten dituzte. Ikasle nagusiak txikiengat euskara aldetik eredu gisa aritzen dira.

Batzorde horien koordinazioaz ikastetxeko talde eragile bat arduratzen da (IPA Batzordea) Irakasle batzuk eta Ikasketak Buruak osatzen dute. Talde sustatzaile honek antolatzen du batzordeetan zer proposatu eta zelan bideratu saioa, eta baita Batzordeak elkartuta dauden bitartean beste ikasleek zer egingo duten ere. Ekintza guztien proposamena diseinatzen dute. Astero egiten dute bilera (astelehenetan).

KAZITAME	<p>Batzordeetan elkartzen diren ikasleek karpeta bana dute.</p> <p>Bileraren akta egiten da: Batzordean zer proposatu den.</p> <p>Gelako akta ere egiten da. Gelan zer egin den eta zer atera den jasotzen da.</p> <p>Ostegunero txantilo bat betetzen da egoeraren inguruko galderekin. Bete eta bilera amaitutakoan ikasle arduradunek Ikasketa Buruari eramaten diote.</p> <p>Beraz, ostegun arratsaldeetan ikasleak egon daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none">a) Parte hartzen duten batzordean gairen bat jorratzenb) Gelan. Talde sustatzaileak proposatutako dinamikak egiten (dinamika kooperatiboak gai baten inguruan) <p>Horiez gain ikasleen arteko trukaketak egiten dira batzuetan; ikasle nagusiak txikienekin aritzen dira.</p>
AZALPENAEMAITZEN	

A+	IKASLEAK, GAITASUNA: Ahozko Komunikazio Gaitasuna garatzeko lanak eskolan. Egoera eta genero formalei zein informalei dagokienez	
Esperientziaren Izena	MINTZAMENA LANTZEKO PRESTAKUNTZA, PLANGINTZA ETA PRAKTIKA	
Helburuak	Mintzamina modu sistematikoan lantzea, eta horretarako curriculumean txertatzea	Mintzamina ikasgelan era sistematikoan lantzea Ahozko generoak curriculumean eta gelako programazioetan txertatzea Hori oinarritzeko irakasleen prestakuntza eta talde-adostasuna lantzea
TESTUINGURUA:	<p>40.000 biztanledun herria, %36 euskalduna, kale-erabilera %12. HH eta LHko ikastetxea, 3 lerrotakoa. 50 bat irakasle eta 550 bat ikasle. Hasieratik Ulibarrin. Duela 15 urtetik D eredu baina ez duena. Ikastetxe bizia, berrikuntza pedagogikoari begira erronka askori heldu diona.</p> <p>Mintzamenaren lanketaren inguruan aspaldiko interesa eta kezka ikastetxean. Ebaluazio Diagnostikoan, barne-ebaluazioaren barnean, mintzamina ebaluatzeko aukera eskaini zenean Berritzeguneak mintzamenaren ebaluazio- eta irakaskuntzari buruzko prestakuntza antolatu zuen. Ikastetxeak ebaluazioa egiteko eta prestakuntza horretan parte hartzeko erabakia hartu zuen. Zikloko bina irakasle joan ziren. Zenbait ikasleren ahozko komunikazio gaitasuna ebaluatu zuten, eta hobekuntza planean mintzamenaren inguruan lanean jartzea erabaki.</p> <p>Abiatzeko irakasleriaren prestakuntzari heldu zioten. Klaustro osoak parte hartu zuen eta 2 urteko prozesua izan zen. MUko Miker taldearekin aritu ziren, IRALEko kanpo ikastaroen deialdiaren barnean</p>	
DESKRIBAPENA	<p>Irakasleen prestakuntza prozesua</p> <p>Prestakuntza saioen baldintzak zorrotzak ziren, erronka izan ziren irakasleentzat, haien inplikazioa eta konplizitatea eskatu zutenak: urtero 11 saio, bi ordukoak, ezohiko ordutegian (17:00etatik 19.00etara; 'esklusiba' orduak eguerdian egin ohi dira ikastetxean). Lehenengo prestakuntza saioak modu trinkoan iraileko lehen astean egin zituzten, ikasleak eskolan hasi baino lehen</p> <p>Prestakuntza prozesuan Ahozko Komunikazioak ikastetxean zuen trataeraren diagnostikoa egin ondoren, Ahozko testu-generoen curriculum osatu zuten.</p> <p><u>1. ikasturtean</u></p> <p>Praktikaren azterketa izan zen ardatz, 'praktika gogoetatsuaren' bidetik. Gelako dinamika aztertu eta baloratu ahal izateko asko hitz egin eta irakurri zuten, haien praktikak aztertzeke eta horiek hobetzeko moduak irudikatzeke</p> <p>Diagnostiko zorrotza izan zen, mailaz maila eta arloz arlo.</p> <p>Diagnostikoa egin ahal izateko gelako lan-saio asko grabatu zituzten</p> <p>Saio horietan mintzamenak zein toki zuen aztertu eta baloratu zuten:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Nolako jardueretan, • Jarduera horietan zer-nolako testu-generoak, jardueran mintzamina helburu edo bitarteko ote zen, zer nolako hizkuntza alderdiri erreparatzen zitzairen (testuala, lexikoa, soziolinguistikoa, fonetikoa, morfosintaktikoa, prosodikoa) • Jarduera horietan irakasleek nolako estrategiak baliatzen zituzten, izan ahozko erabilera suspertzeke, izan hausnarketa sustatzeko • Jardueran ahozko komunikazioak zein funtzio betetzen dituen <p><u>2. ikasturtean</u></p> <p>Zer, noiz eta nola landuko zuten erabaki. Baita zer, noiz eta nola ebaluatuko zuten</p>	

	<p>adostu zuten</p> <ul style="list-style-type: none"> • 'Ahozko testu-generoen progresioa curriculumean' izeneko dokumentuan islatu zuten erabakitakoa. Bertan, zikloz ziklo, zein arlotan zer-nolako testu generoak landuko dituzten. • Erabakitakoa ohiko Sekuentzia Didaktikoetan islatu (sekuentzia horiek birmoldatu zituzten ahozko testu-genero horien lanketari tokia egiteko) eta aplikatzen hasi ziren. <p><i>Oharra:</i> Haur hezkuntza eta LHko 1. zikloan lan guztia Sekuentzia Didaktiko (SD) horien bidez bideratzen da. LHko 2. eta 3. zikloan testu liburuan oinarritutako lana egiten dute, baina urtero bi proiektu nagusi ere garatzen dituzte (ikastetxe osoan garatzen diren proiektuak dira).</p> <p>Zenbait Sekuentzia Didaktikoren 'azken ekoizpena' ahozko testu bat da. Beste zenbaitetan berriz ahozko generoak bitarteko lanetan txertatu dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ahozko ekoizpen horietako asko grabatu eta behatu egiten dira. • Mintzamenaren lanketarako tresna ugari sortu dituzte: <ul style="list-style-type: none"> ○ testu generoen progresioa curriculumean zehazten duena ○ koebaluziorako tresnak ○ irakasleen esku hartzea gidatzeko praktika onen adierazleak
EMAITZAK	<ul style="list-style-type: none"> • Esan bezala, ahozko generoak txertatu dira ohiko SDetan. Eta horien arabera lantzen ari dira. • Eragin handiagoa izan du HHn eta LHko 1. zikloan SDak baitira urte osoko lanaren ardatza. LHko 2. eta 3. zikloetan eragina mugatuagoa izan da; urtean bi SD baino ez baitituzte egiten • Erabakitako gauza asko sistematizatu egin dira eta ondo txertatu dira eguneroko lanean. Irakasle aldaketa ugari egon diren arren eta ikastetxean beste hainbat erronkek zentralizadea hartu duten arren (ikasketa kooperatiboa...), erabakiak mantendu egiten dira. Ikastetxeko praktikan eta kulturaren finkatuta daudela esan daiteke. Horren adierazle: oraindik ikasleen ekoizpenen grabazio asko egin eta aztertzen direla. • Mintzamenaren lanketaren inguruan ideia argi batzuk ondorioztatu zituzten (SD batean mintzamenari dagokionez ikasketa helburu argia eta bakarra, entzulea aintzat hartzearen garrantzia...) • Erabakitakoa praktikan jartzerakoan galdera berriak sortu zaizkie: hitz egoteko egoerak sortu ditugu bai, baina ... nola jarri umeak hizketan? Nola sustatu hitz egin dezaten? Horri prestakuntza-jarduera berri baten bidez heldu zioten eta praktika berrik martxan jartzera eraman ditu, baiian hori beste historia bat da. <p>Balorazioa Oro har ondo Anbizio handikoa eta zorrotza Zailtasunak- eragozpenak: urtero aldaketak irakasleen artean, batzuk alde egin eta berriak etorri. Berriak egitasmoan kokatu behar. Prestatzaileen taldean ere aldaketak izan dira eta honek eragin izan du prozesuan. Zuzendaritza taldeak lan handia egin behar izan zuen saioak antolatzen eta gorabeherei aurre egiten.</p>
EMAITZEN AZALPENA	<p>Zailtasunak gora-behera prestakuntza proiektua aberasgarria izan da: gelako praktiken azterketatik abiatu, horiek kontrastatu eta horiek hobetzeko erabaki operatiboen bila.</p> <p>Talde-lana eta talde adostasuna oinarri.</p> <p>Prozesua abian jartzea irakasleen nahi eta erabaki konpartitua izan zen, zuzendaritza taldeak gidatuta eta mimatua.</p>

A+	IKASLEAK, GAITASUNA: Ahozko Komunikazio Gaitasuna garatzeko lanak eskolan. Egoera eta genero formalei zein informalei dagokienez	
Izena Esperientziaren	AHOZKOAREN SORMENA ZERGATIK LANDU BERTSOLARITZA?	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak:
	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko komunikazioa hobetzeko - Euskal kultura ezagutzeko eta sustatzeko - 	<ul style="list-style-type: none"> - Alde batetik, HIZTEGIA aberasten du. - Bestetik, komunikazio estrategia eraginkorrak bultzatzen ditu. - Ahozko eta idatzizko literaturaren transmisioa bermatu egiten da - Euskal kantutegia ezagutu eta gozatzeko balio du: doinuak, kantu tradizionalak, herrikoiak, musikari eta kantariak ...
TESTUINGURUA:	<p>Bertsolaritzaren “plusa”.</p> <p>“ Lanketa hau modu ludikoan egiten da; hitzaren bidez egiten den jolasa baita. Ikasgelako egoera formaletik haratago, bertsolaritza lantzean hizkuntzaren alderdi formala eta ez formala arakutzen dira, bertsoaren arauak jarraitu behar honetan. Horrela euskalkia erabiltzeko aukera ere ematen du; baita onomatopeiak txertatzeko, esaerak, berbak ...”</p>	
DESKRIBAPENA	<p>Jende aurreko jarduerak eskatzen dituen trebetasunak eta gaitasunak landuko ditu ikasleak: iritziak adierazteko gaitasuna, kantatzeko era, gorputzaren jarrera, ahotsa, musikaltasuna, ...</p> <p>Mailaz- maila, adinari egokituta, entzunez, jolastuz, abestuz, asmatuz eta probatuz. Hala ere, lanketa osoa izateko, ezinbestekoa da bertsolaritzak dakarren alderdi teknikoa ere irakastea eta hau izango da jarraibidea.</p> <p>“ Hasieran, bertsolaritza, eginez ikasteari eman behar zaio garrantzia eta ez hainbeste, alderdi teknikoa lantzeari. Baina, ikasleak, adinean aurrera doan heinean, bertsoa osatzeko bete behar tekniko batzuk zuzen erabiltzen ere ikasiko du ”</p> <p>HHn hasi eta DBHra arte, mailaz- maila eta gai bakoitzean gutxienez behin, bertsolaritza sistematikoki lantzen dugu, eta sistematizazio honen garrantzia ere, azpimarratu nahiko nuke.</p> <p>Txikienekin, HH eta LHko etapetan, egiteari, jolasteari, emango diogu indarra. DBHko ikasleekin berriz, teknika menperatzean, sormenean, musikaltasunean eta jarreran eragingo dugu.</p> <p>Azkenez, nahi duten ikasleek (eta maila bat dutenek) aurrera egingo dute eta jende aurrean jardungo dute.</p>	

EMAITZAK	<p>Ikastolako sasoia bukatzean, zaletasuna eta gaitasuna erakusten dituzten ikasleei, jarduera honekin jarraitzeko aukerak eta baliabideak eskaintzen zaizkie.</p> <p>Gero, Lea Artibaiko ikastetxe ezberdinen artean, jaialdiak antolatzen diren, ikasturtean zehar landutakoa erakusteko xedearekin. Bertso txapelketetan ere parte hartzen dugu bai idatzizko txapelketetan eta baita bat-bateko txapelketetan ere. Hau guztia hau, borondatezkoa da</p> <p>Zaletasuna sortzeko ezinbestekoa dela uste dugu..</p>
EMAITZEN AZALPENA	<ul style="list-style-type: none">- Irakasle bat dago hau guztia bultzatuz.- Irakasleen zaletasunaren esku geratzen dira jarduera hauek.- Eskualdean badaude txapelketak eta eragileak hau bultzatzen dutenak.

C+	IKASLEAK, ERABILERA: Talde lanean edo lan kooperatiboan dihardutenean ikasleen arteko elkarreragina euskaraz eman dadin zein estrategia baliatu? Nola jokatu? Zer egin eta nola jokatu Ikaslek gelan hitza izan dezaten? Nola eskaini eta dinamizatu erabilera-egoera asko, askotarikoak eta gero eta konplexuagoak? Eta gelaz kanpo?	
Izena Esperientziaren	<h2 style="text-align: center;">EUSKARAREN AHOZKO ERABILERAN ERAGIN NAHIAN</h2>	
Helburuak	Orokorra: <ul style="list-style-type: none"> - Euskaraz aritzeko ohitura sortu. - 	Zehatzak: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek euskara erabil dezatela beraien artean testuinguru esanguratsuetan eta egoera errealetan. Euskara benetako komunikazio hizkuntza izan dadila. - Ikastetxeko antolamenduan hainbat erronkari lotura ematea euskara ardatza izanik eta euskararen erabilera beharrezkoa bihurtuz. - Euskaraz arituz hainbat proiektu/programa (ekologia-jasangarritasuna, IK/KI, tutoretza, ikasleen parte hartzea, ikasleen ekimena, adin ezberdinetako ikasleen arteko elkarreragina, IKT, euskararen erabilera HNP...) landu,
TESTUINGURUA:	<p>Ardatza: euskara sustatzea</p> <p>Kokatze lana: ahozkotasunari garrantzia ematen urte asko daramate.</p> <p>Euskara bultzatzeko kanpainak egiten dituzte aspaldidanik. Ez da nahikoa. Erabiltzeko ohiturak sortu behar dira.</p> <p>3. Egoera formaletan: ahoz euskaraz aritzeko jarduerak planifikatu. Euskara erabili behar izateko egoerak sortu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Solasaldi dialogikoak ✓ IK/KI dinamikak ✓ ... <p>4. Egoera ez formaletan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Irakasleen artean landuta eta adostuta daude ikasleek erdaraz dihardutenean eragiteko esku-hartzeak. Irakasle guztiek antzera jokatzeko da helburua. ✓ Astean bitan jolas-orduan jolas edo joko kooperatiboak antolatzen dira. Joko ezberdinak eginez taldeak sortzen dira, heldu-irakasle baten esku-hartzearekin. Irakaslearen helburua euskarara erakartzeko estrategiak erabiltzea ikasleak gaztelaniaz ari direnean. ✓ Irratia 	

Antolaketa: IPA bidez (ikasleek parte hartzeko antolaketa). Ikasleak parte aktiboak izan daitezten tresna eta mekanismoak eskaini behar zaizkie. Asteko egutegi eta ordutegian guztia txertatuta dago.

Sei batzorde daude osatuta eta aparte elkartzen dira. Geletako ikasle ordezkariak eta irakasle arduradun batek osatzen dituzte. Ostegun arratsaldean elkartzen dira astero. Normalean Lehen Hezkuntzako ikasleak aritzen dira. Hondakinen kasuan HHkoek ere hartzen dute parte ekimenetan baina oso zuzenduta. Gaiaren arabera Lehen Hezkuntzako 1. Zikloko ikasleek ere ez dute parte hartzen. Sei batzordeak (aldatzen joan dira gaiak eta helburuak):

7. Ordezkaritza Batzordea: Eskolako eta geletako arauak. Ingurumena zaintzeko ekimenak. Jai jasagarriak. Orain eskolako pertsonaia ari dira sortzen. 3. eta 6. Maila bitartekoak.

8. Patio-jolasen antolaketa Batzordea. Bost egunetik bi baloi gabeko egunak dira. Patioa espazio hezitzailea izatea nahi da, eta jolas garaiko hizkuntza erabilera eragin. Mota ezberdinetako jolasak proposatzen dira: betiko jolasak, joku kooperatiboak.

Patioan 7 eremu egiten dira. Eremu bakoitzean irakasle bat dago. Ikasleek jolasten duten bitartean eragiten ari da (bere presentziak berez badu eragina eta behar izanez gero eskuhartzea egiten du).

Batzordeak egin behar diren jolas guztiak antolatzen ditu. Batzordekideek irakasten dizkiete beste gelakideei jolasak... Batzorde honetako arduraduna Gorputz Heziketako irakasle bat da. Batzuetan Gorputz Heziketa klasean lantzen edo ikasten dira jolasak.

Batzordeko partaideak (geletako ordezkariak) badute beste material batzuen berri: zer eta non dauden. Material bere garaian osatu zen ikasleek eginiko proposamenen arabera bildu eta prestatuta. Ordezkaririk arduradunek materiala ateratzen dute ikasleen esku egon dadin.

9. Agenda 21 Batzordea. Programako aurtengo gaia elikadura jasagarria denez, horren lanketa bermatzeko baliaitu dute. Proiektuen lanketa erara aritu dira: aurrezagutzak aztertu, zer jakin nahi duten mahai-gainerat, landu, e.a. Lehendabizi Batzordeak lantzen du zer, nola proposatu eta zein jarduera egin eta ondoren geletan egiten da lanketa ikasle guztiekin. Gurasoen proposamen-ekarpenak ere egon izan dira.

10. Aniztasuna. Elkarbizitzarako Batzordea. Bertan gaiak lantzen dituzte eta geletan zer jorratu proposatu, jarduerak eta dinamikak zehaztu eta geletara eraman eta bideratu.

11. Irratia. Ikasleen ahozko erabilera bultzatzeko

12. Hondakinen jasoketa. Hondakinak bereizten direla ziurtatu, dagokion tokietara eraman. Ikasle nagusienek txikienekin egiten dituzte. Ikasle nagusiak txikiengat euskara aldetik eredu gisa aritzen dira.

Batzorde horien koordinazioaz ikastetxeko talde eragile bat arduratzen da (IPA Batzordea) Irakasle batzuk eta Ikasketako Buruak osatzen dute. Talde sustatzaile honek antolatzen du batzordeetan zer proposatu eta zelan bideratu saioa, eta baita Batzordeak elkartuta dauden bitartean beste ikasleek zer egingo duten ere. Ekintza guztien proposamena diseinatzen dute. Astero egiten dute bilera (astelehenetan).

EMAITZAK	<p>Batzordeetan elkartzen diren ikasleek karpeta bana dute.</p> <p>Bileraren akta egiten da: Batzordean zer proposatu den.</p> <p>Gelako akta ere egiten da. Gelan zer egin den eta zer atera den jasotzen da.</p> <p>Ostegunero txantilo bat betetzen da egoeraren inguruko galderekin. Bete eta bilera amaitutakoan ikasle arduradunek Ikasketa Buruari eramaten diote.</p> <p>Beraz, ostegun arratsaldeetan ikasleak egon daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none">c) Parte hartzen duten batzordean gairen bat jorratzend) Gelan. Talde sustatzaileak proposatutako dinamikak egiten (dinamika kooperatiboak gai baten inguruan) <p>Horiez gain ikasleen arteko trukaketak egiten dira batzuetan; ikasle nagusiak txikienekin aritzen dira.</p>
EMAITZEN AZALPENA	

C +	IKASLEAK, ERABILERA: Talde lanean edo lan kooperatiboan dihardutenean ikasleen arteko elkarreragina euskaraz eman dadin zein estrategia baliatu? Nola jokatu? Zer egin eta nola jokatu ikasleek gelan hitza izan dezaten? Nola eskaini eta dinamizatu erabilera-egoera asko, askotarikoak eta gero eta konplexuagoak? Eta gelaz kanpo?	
Esperientziar en Izena	IKASLEEN ERABILERAN ERAGITEKO PRESTAKUNTZA ETA ONDORENGO APLIKAZIO-PLANGINTZA	
Helburuak	Ikasleen gela barneko erabilera areagotzeko irakasleok zer egingo dugun adostea eta martxan jartzea	Ikas-talde bakoitzaren ezaugarriei egokitutako helburuak zehaztea Ezarri helburuetarako prozedurak eta estrategiak adostea Adostutakoa martxan jartzea
TESTUINGURUA:	<p>40000 biztanledun herria, %36 euskalduna, kale-erabilera %12. HH eta LHko ikastetxea, 3 lerrotakoa. 50 bat irakasle eta 550 bat ikasle. Hasieratik Ulibarrin. Duela 15 urtetik D eredu baina ez duena. Ikastetxe bizia, berrikuntza pedagogikoari begira erronka askori heldu diona.</p> <p>Ikasleen mintzamina eta erabileraren inguruan interesa duena eta bide egokien bila diharduena. Mintzamina gelan nola landu erabaki eta lanean hasi ondoren (bi urteko prestakuntza-prozesu baten ondorioz). Galdera berri bati erantzun nahi zioten: <i>ikasleei eskaintzen dizkiegu euskaraz aritzeko aukerak, bai; baina nola jarri umeak hitz egiteko tesituran? Nola 'butzatu' edo 'animatu' egoera horietan euskaraz aritu daitezten?</i></p> <p>Erantzunaren bila prestakuntza-ekintza ibilbide berri bati ekin zioten (IRALeren deialdia baliatuz, ikastetxearen formazioaren barnean), EBETEekin.</p> <p>Bi talde eratu zituzten HHko eta LHkoa.</p>	
DESKRIBAPENA	<p><u>Egindakoaren kontaketa laburra:</u></p> <p>Prestakuntza saioetan ikasleen erabileran eragiteko proposamena ezagutu, ikastetxearen egoera aztertu, ikasle-taldeei egokitutako helburu zehatzak, prozedurak eta estrategiak adostu zituzten. Adostutakoa, gero, irakasleok gelara eraman. Egun helburu, prozedura eta strategi horiek ikastetxeko lan ohituretan finkatuta daude</p> <p>Beraz, honela laburtu daiteke irakasle-taldeak egindako prozesua:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proposamenaren oinarriak eta erreferentziako helburuak eta prozedurak ezagutu • Ikastetxearen errealitatea aztertu • Ikas-talde bakoitzari egokitutako helburu zehatzak ezarri • Helburu horiei begirako prozedurak eta estrategiak adostu • Adostutako martxan jarri. Horren jarraipena egin <p><u>Osagai garrantzitsuenen deskribapen zehatzagoa:</u></p> <p>Proposamenaren oinarriak:</p> <p>Proposamen honek bi oinarri hauek ditu (oinarriak dokumentu idatzi baten eman zitzaizkien irakasleei): <i>'Baiezkoaren dinamika'</i> eta <i>'Erabiltzeko inizatiba'</i></p> <p>1.- <i>'Baiezkoaren dinamika'</i>:</p> <ul style="list-style-type: none"> • ikasleei euskara erabiltzen laguntzea. (geu baikara euskara gehiago erabiltzea nahi dugunak): lagundu euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabil dezaten, erruri 	

bata gabe guk nahi beste baliatzen ez badute

- zertan ari garen jakitea: bereiztea 'norabidea' (gure nahia edo xedea: euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabil dezaten) eta 'helburu zehatza' (abiapuntu egoera jakin honetan egonda lorgarri zaiguna); eta argi edukitzea zer egingo dugun helburu zehatz horietara ailegatzeko (zein estrategia baliat eta nola)
- gustura aritzea: helburua argi edukitzeak eta zer egin ondo definituta izateak gustura aritzeko aukera emango digu (eta etsipenean erortzeko arriskua ekidingo digu)

2.- 'Erabiltzeko inizatiba' (erabileraren urraspidea)

- Identifikatzea ikasleak erabilerari dagokionez zein puntu edo urratsetan dauden:
 - Euskaraz erantzuten al diete ikasleek irakasleei? Guztiek eta beti?
 - Euskaraz zuzentzen al dira irakasleengana? Guztiak eta beti?
 - Nola egiten dute ikasleen artean irakaslea beraiekin ari denean?
 - Nola egiten dute ikasleen artean irakaslea beraiekin ari ez denean?
- Horren arabera helburu nagusiak finkatzea (ondorengo urraspidearen arabera). Helburu nagusi hauek oinarri hartuta zedarrituko dira ikasle-talde bakoitzaren ezaugarri eta baldintzetara egokitutako helburu zehatzak):
 - Irakasleoi euskaraz erantzutea.
 - Irakasleongana euskaraz zuzentzea.
 - Ikasleen artean euskaraz egitea irakaslea beraiekin ari denean.
 - Irakasleen artean euskaraz egitea irakasle beraiekin ari ez denean.

Errealitatearen azterketa. Ikasleen erabileraren analisia. Prozesuaren hasieran. Errealitateari egokitutako helburu zehatzak ezarri ahal izateko. Azterketa hori prozesuaren hasieran ez ezik ikasturtean zehar edota bukaeran ere errepikatu daiteke, bilakaera et lorpenak ikusteko, Zer aztertu duten? Ikasleen erabilera...

- **Gela barruan:**
 - Ikasleek (banan bana) **irakasleekin** erabiltzen duten hizkuntza (guri erantzutean eta guregana zuzentzean)
 - **Taldeetan** ari direnean erabiltzen duten hizkuntza (guri erantzutean eta guregana zuzentzean)
- **Gelaz kanpo**
 - Ikasleek (banan bana) **irakasleekin** erabiltzen duten hizkuntza
 - **Beraien kabuz** dabiltzanean erabiltze duten hizkuntza (behatz zenbat talde ari dira gaztelaniaz eta enbat euskaraz)

Helburuak zehatzak definitzeko erreferentziak

- Irakasleoi euskaraz erantzutea eta irakasleongana euskaraz zuzentzea.
- Ikasleen artean euskaraz egitea taldeka daudenean eta irakaslea elkarrizketaren parte denean.
- Ikasleen artean euskaraz egitea gelan daudenean eta irakaslea elkarrizketaren parte denean
- Ikasleen artean euskaraz egitea gelan taldeka daudenean baita irakaslea taldetik kanpo egonda ere
- Ikasleen artean euskaraz egitea gelan denbora tarte batean (goiz osoa, egun osoa, aste bat...) baita irakaslea taldetik kanpo dagoenean ere.
- Ikasleen artean euskaraz egitea ikastetxeko eremu osoan denbora tarte batean baita irakaslea taldetik kanpo dagoenean ere.

Hainbat motatako **prozedurak**, helburu zehatz horiek lortzeko

Haur Hezkuntzan	Lehen Hezkuntzan
• Mezua ematea	• Mezua ematea
• Elkarrizketak sortzea	• Eredua ematea
• Elkarrizketa horietan eragitea	• Banakakoekin elkarrizketak sortzea
• Ahalegina eskatzea	• Ikasleen arteko elkarrizketak sortzea
• Ahalegina baloratzea	• Ahalegina eskatu
	• Ahalegina baloratu

	<p>Prozedura horien deskribapena</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Mezua ematea: proposatutako helburua zein den argi aurkeztu, horren zentzua azaldu, ahalegina eskatu, espektatiba baikorra erakutsi, laguntza eskaini eta ikasleak animatu. ○ Elkarrizketak sortzea: asko, egunero, laburrak ez, zailtasunak dituztenei arte hartzeko laguntza eskaini, ahalegina baloratu ○ Elkarrizketa horietan eragitea:(ikasleen artean hitz egin dezaten eragitea)ikasleen arteko elkarrizketa sustatu eta bideratu (gelan zein gelaz kanpo) ○ Ahalegina eskatzea: beharrezkoa balitz helburua gogoraraziz edota ez ulertuarena eginez ○ Ahalegina baloratzea: errefortzu positiboa ematea <p>HHko berariazkoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Eredua ematea: elkarrizketetan parte hartzeko behar dituzten hizkuntza baliabideen ereduak eskaini, zuzenean (elkarrizketa egoeran bertan) eta zeharka (abesti, ipuin, marrazki bizidun eta abarren bidez) ● Banakakoekin elkarrizketak sortzea. Eta horietan laguntzeko estrategiak baliatzea: irakasleak esandakoa errepikarazi, hoberen egokitzen zaien galdera-mota baliatu (itxia, itxia aukerak eskaintzen dituena, itxia erantzun luzea eskatzen duena, irekia erduekin edo irekia) ● Ikasleen arteko elkarrizketak sortzea, jarduera aproposak baliatuz edo moldatuz, eta esku hartzen laguntzea: irakasleak esandakoa errepikarazi; elkarrizketa bideratzeko ereduak eskaini eta ,batzuetan, errepikarazi, aukerak eman eta eztabaidan jarri... <p>Erabakitakoa aplikatu eta horren jarraipena egin:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ikasturte hasieran, ikasleekin lanean hasi aurretik <ul style="list-style-type: none"> ○ Oinarriak gogoraraziko dira. ○ Jarduera osagarrien ideia aztertuko da eta aukerak ikusiko dira. ● Ikasturte hasieran, ikasleekin hasi ondoren: <ul style="list-style-type: none"> ○ Talde bakoitzerako helburuak eta prozedurak adostuko dira. ○ Jarduera osagarriak erabiliko ote diren erabakiko da: zein jarduera, nork eta noiz. ● Ikasturtean zehar: <ul style="list-style-type: none"> ○ Gutxienez hiru hilean behin gaia aztertuko da bilera batean: ebaluazio egin, berdin jarraitu eta aldaketak egitea adostu... ● Ikasturte amaieran: <ul style="list-style-type: none"> ○ Bilera batean ebaluazioa egingo da eta hurrengo ikasturterako urratsak erabakiko dira.
EMAITZAK	<p>Lorpen hauek izan dira</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ikastetxearen errealitatea aztertu ● Ikas-talde bakoitzari egokitutako helburu zehatzak ezarri ● Helburu horiei begirako prozedurak eta estrategiak adostu ● Adostutako martxan jarri. Horren jarraipena egin <p>Irakasleria pozik dago egindako formazioarekin eta horren ondorioz abian jarri duten lanketarekin</p>
EMAITZEN AZALPENA	<p>Helburu zehatzak finkatzea eta estrategia konkretuak definitze. Espektatibak ajustatu eta egitekoa argitu</p> <p>Lidergoa, arduradunak</p> <p>Irakasleen talde-lana: hausnarketa eta erabakiak taldean bertan. Ikastetxean talde-lanerako ohitura</p>

C +	IKASLEAK, ERABILERA: Talde lanean edo lan kooperatiboan dihardutenean ikasleen arteko elkarreagina euskaraz eman dadin zein estrategia baliatu? Nola jokatu? Zer egin eta nola jokatu ikaslek gelan hitza izan dezaten? Nola eskaini eta dinamizatu erabilera-egoera asko, askotarikoak eta gero eta konplexuagoak? Eta gelaz kanpo?	
Esperientziaren izena	EGIN DEZAGUN EUSKARAZ JOLASTORDUAN!	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak:
	- Jolastorduko garaian euskararen erabilera eragitea.	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara erabiltzea jolastorduan. - Jolas eredu ezberdinak ezagutaraztea. - Adin ezberdinetako ikasleak elkarrekin jolastea.
Testuingurua:	Ikastetxea Dulantzina dago, eta herri erdalduna dela esan daiteke. Ikasle gehienek gaztelania dakarte ama hizkuntza bezala eta oso gutxi dira euskaraz etxean hiztututakoak. Bestalde, ikasle multzo bat ere badago, etxean arabieraz egiten duena.	
DESKRIBAPENA :	Jolastorduan ikasleek euskararik erabiltzen ez dutenez, normalkuntza batzordetik erabilera eragiteko proposamena luzatzen da zikloetara. Hurrekin euskaraz jolasteko prest dauden irakasleen izenak hartu eta egutegi bat antolatu da. Hizkuntzaren erabilera bermatzen duten jolasak hautatu ditugu eta esperientzia praktikara eramango dugu ikasturte osoan zehar. Astean behin irakasle bat aterako da esku jolasetan, soka-saltoan, pista jolasean, etab. Jolastera. 11:00etatik 11:20 etara iraungo du ekintzak. Nahi duten ikasleek parte hartuko dute.	
EMAITZAK:	Oraingoan oso ongi ateratzen ari da. Printzipioz euskararen erabilera eragitea lortu da eta baita beste jolas mota batzuetan aritzea ere.	
Emaitzen azalpena	Ateratzen den irakaslearen abileziak eta inplikazioak asko eragin du arrakastan. Pixkanaka gero eta ikasle gehiago inplikatzeko dira eta inoiz, ikasleek hurrengo egunetan ere jolas horretan jolasten jarraitu dute.	

C +	IKASLEAK, ERABILERA: Talde lanean edo lan kooperatiboan dihardutenean ikasleen arteko elkarreragina euskaraz eman dadin zein estrategia baliatu? Nola jokatu? Zer egin eta nola jokatu ikaslek gelan hitza izan dezaten? Nola eskaini eta dinamizatu erabilera-egoera asko, askotarikoak eta gero eta konplexuagoak? Eta gelaz kanpo?	
Esperientziaren izena	IKASLEEK EMANDAKO TAILERRAK (DBHn)	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak:
	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleei protagonismoa ematea. - Erabilera sustatzea. - Ez daukaten jarduera baten berri izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> -ikasleek beraiek antolatutako zerbait egitea. -ikasleek elkarrekin euskaraz jardutea. -azalpenak ematen ikastea.
DESKRIBAPENA:	<ul style="list-style-type: none"> - Kultur astearen barruko jarduera zatitzen (?) da.bi edo hiru ikaslek prestatu egiten dute tailerra. azalpena euskaraz , irakasleak gainbegiratu eta oharrak egiten dizkie emaileei. - DBH 3-4 ko ikasleak dira, oro har, emaileak. - Jasotzaileak, berriz, DBH 1-2 koak. hirugarren eta laugarren mailako ikasleak ere izaten dira -30´ - 45´ inguruko saioak. - Emandako tailerrak: dantza tailerra,bizikleta tailerra, marrazki tailerra,mahai jolasak, grafitiak, cup song, edari koktelak (10 guztira) 	
EMAITZAK:	<ul style="list-style-type: none"> - Emaitzak era guztietakoak izan dira baina oro har baikorrak - Tailerrak urte batetik bestera aldatzen dira. 	

C	<p>IKASLEAK, ERABILERA: Talde lanean edo lan kooperatiboan dihardutenean ikasleen arteko elkarreragina euskaraz eman dadin zein estrategia baliatu? Nola jokatu? Zer egin eta nola jokatu ikaslek gelan hitza izan dezaten? Nola eskaini eta dinamizatu erabilera-egoera asko, askotarikoak eta gero eta konplexuagoak? Eta gelaz kanpo?</p>	
Izena/Esperientziaren	<h2 style="text-align: center;">DURANGOKO LIBURU ETA DISKO AZOKARA BISITA</h2>	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak:
	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxez kanpo euskaraz aritzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Ordu batzuetan izanda ere, euskal giroan murgiltzea</i> - <i>Erabakiak hartzea</i> - <i>Haien artean adosten ikastea</i> - <i>Euskal kulturaren adierazpen baten lekuko izatea</i> - <i>Euskara ikastetxez kanpo entzutea eta erabiltzea</i>
TESTUINGURUA:	<p>Bizkaiko Ezkerraldeko institutua. Giro guztiz erdalduna. 11 Esku programako ikastetxea. Herri ikastetxea.</p> <p>A eta D ereduak daude.</p> <p>Ikastetxean euskarak ez du inolako lehentasunik. Ikastetxearen ardura bakarra: eskola porrota jaiste.</p>	
DESKRIBAPENA	<p>Hartzaileak Batxilerreko ikasleak, D eredukoak.</p> <p>Durangoko azokaren berri zabaldu ikasleen artean.</p> <p>Durangora joan aurretik ikasle motibatuenekin saio batzuk egin: nobedadeen berri ematek, zein liburu eta disko erosi pentsatzeko, gero ikasleen artean zozketatu egingo baitira; autobusean jarri beharreko musika erabakitzeko...</p> <p>Eta eguna heltzean autobusean Liburu eta Disko Azokara joan.</p> <p>Eragilea euskara irakaslea izan da, era berean HNAT ere badena.</p>	
EMAITZAK	<p>Jarduera honekin, orokorrean, lortzen diren emaitzak ez dira oso onak izaten, eskolaz kanpo euskaraz egitea ia pentsaezina suertatzen baitzaie.</p> <p>Aipatutako aurre- bileretan, ikasle motibatuenekin egiten diren saioetan, bai lortzen dela euskaraz aritu daitezen; baita, gero, motibatuen dauden horiek, saltokietan galderak eta erosketak egitean ere. Baina horrez gain, nekez.</p> <p>Gainerako ikasleek ez dute hitzik ere egiten euskaraz.</p>	
EMAITZEN AZALPENA	<p>Ikasle hauentzat euskarak ez duelako ezer esaten.</p>	

D+	IKASLEAK, MOTIBAZIOA ETA JARRERAK: Zer egin eta nola? Euskara erabiltzea errazten ez duten egoeretan zein dira erabiltzaile aktibo izateko behar diren usteak (kontzientzia) eta gizarte trebetasunak (asertibitatea, enpatia, talde-presioari aurre egiteko ahalmena...) zer egin eta nola jokatu	
Esperientziar en Izena	IKASLEEN ERABILERA MOTIBATZEKO PRESTAKUNTZA ETA ONDORENGO APLIKAZIO PLANGINTZA	
Helburuak	Ikasleen gela barneko erabilera areagotzeko irakasleok zer egingo dugun adostea eta martxan jartzea	Ikas-talde bakoitzaren ezaugarriei egokitutako helburuak zehaztea Ezarri helburuetarako prozedurak eta estrategiak adostea Adostutakoa martxan jartzea
TESTUINGURUA:	<p>40000 biztanledun herria, %36 euskalduna, kale-erabilera %12. HH eta LHko ikastetxea, 3 lerrotakoa. 50 bat irakasle eta 550 bat ikasle. Hasieratik Ulibarrin. Duela 15 urtetik D eredu baina ez duena. Ikastetxe bizia, berrikuntza pedagogikoari begira erronka askori heldu diona.</p> <p>Ikasleen mintzamina eta erabileraren inguruan interesa duena eta bide egokien bila diharduena. Mintzamina gelan nola landu erabaki eta lanean hasi ondoren (bi urteko prestakuntza-prozesu baten ondorioz). Galdera berri bati erantzun nahi zioten: <i>ikasleei eskaintzen dizkiegu euskaraz aritzeko aukerak, bai; baina nola jarri umeak hitz egiteko tesituran? Nola 'butzatu' edo 'animatu' egoera horietan euskaraz aritu daitezten?</i></p> <p>Erantzunaren bila prestakuntza-ekintza ibilbide berri bati ekin zioten (IRALeren deialdia baliatuz, ikastetxearen formazioaren barnean), EBETerekin.</p> <p>Bi talde eratu zituzten HHko eta LHkoa.</p>	
DESKRIBA PENA	<p><u>Egindakoaren kontaketa laburra:</u> Prestakuntza saioetan ikasleen erabileran eragiteko proposamena ezagutu, ikastetxearen egoera aztertu, ikasle-taldeei egokitutako helburu zehatzak, prozedurak eta estrategiak adostu zituzten. Adostutakoa, gero, irakasleok gelara eraman. Egun helburu, prozedura eta strategi horiek ikastetxeko lan ohituretan finkatuta daude</p> <p>Beraz, honela laburtu daiteke irakasle-taldeak egindako prozesua:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proposamenaren oinarriak eta erreferentziako helburuak eta prozedurak ezagutu • Ikastetxearen errealitatea aztertu • Ikas-talde bakoitzari egokitutako helburu zehatzak ezarri • Helburu horiei begirako prozedurak eta estrategiak adostu • Adostutako martxan jarri. Horren jarraipena egin <p><u>Osagai garrantzitsuenen deskribapen zehatzagoa:</u> Proposamenaren oinarriak: Proposamen honek bi oinarri hauek ditu (oinarriak dokumentu idatzi baten eman zitzaizkien irakasleei): <i>'Baiezkoaren dinamika'</i> eta <i>'Erabiltzeko inizatiba'</i></p> <p>1.- <i>'Baiezkoaren dinamika'</i>:</p> <ul style="list-style-type: none"> • ikasleei euskara erabiltzen laguntzea. (geu baikara euskara gehiago erabiltzea nahi 	

dugunak): lagundu euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabil dezaten, erruri bata gabe guk nahi beste baliatzen ez badute

- zertan ari garen jakitea: bereiztea 'norabidea' (gure nahia edo xedea: euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabil dezaten) eta 'helburu zehatza' (abiapuntu egoera jakin honetan egonda lorgarri zaiguna); eta argi edukitzea zer egingo dugun helburu zehatz horietara ailegatzeko (zein estrategia baliat eta nola)
- gustura aritzea: helburua argi edukitzeak eta zer egin ondo definituta izateak gustura aritzeko aukera emango digu (eta etsipenean erortzeko arriskua ekidingo dugu)

2.- 'Erabiltzeko iniziatiba' (erabileraren urraspidea)

- Identifikatzea ikasleak erabilerari dagokionez zein puntu edo urratsetan dauden:
 - Euskaraz erantzuten al diete ikasleek irakasleei? Guztiek eta beti?
 - Euskaraz zuzentzen al dira irakasleengana? Guztiak eta beti?
 - Nola egiten dute ikasleen artean irakaslea beraiekin ari denean?
 - Nola egiten dute ikasleen artean irakaslea beraiekin ari ez denean?
- Horren arabera helburu nagusiak finkatzea (ondorengo urraspidearen arabera). Helburu nagusi hauek oinarri hartuta zedarrituko dira ikasle-talde bakoitzaren ezaugarri eta baldintzetara egokitutako helburu zehatzak):
 - Irakasleoi euskaraz erantzutea.
 - Irakasleengana euskaraz zuzentzea.
 - Ikasleen artean euskaraz egitea irakaslea beraiekin ari denean.
 - Irakasleen artean euskaraz egitea irakasle beraiekin ari ez denean.

Errealitatearen azterketa. Ikasleen erabileraren analisia. Prozesuaren hasieran. Errealitateari egokitutako helburu zehatzak ezarri ahal izateko. Azterketa hori prozesuaren hasieran ez ezik ikasturtean zehar edota bukaeran ere errepikatu daiteke, bilakaera et lorpenak ikusteko, Zer aztertu duten? Ikasleen erabilera...

- **Gela barruan:**
 - Ikasleek (banan bana) **irakasleekin** erabiltzen duten hizkuntza (guri erantzutean eta guregana zuzentzean)
 - **Taldeetan** ari direnean erabiltzen duten hizkuntza (guri erantzutean eta guregana zuzentzean)
- **Gelaz kanpo**
 - Ikasleek (banan bana) **irakasleekin** erabiltzen duten hizkuntza
 - **Beraien kabuz** dabiltzanean erabiltze duten hizkuntza (behatz zenbat talde ari dira gaztelaniaz eta enbat euskaraz)





Helburuak zehatzak definitzeko erreferentziak


- Irakasleoi euskaraz erantzutea eta irakasleengana euskaraz zuzentzea.
- Ikasleen artean euskaraz egitea taldeka daudenean eta irakaslea elkarrizketaren parte denean.
- Ikasleen artean euskaraz egitea gelan daudenean eta irakaslea elkarrizketaren parte denean
- Ikasleen artean euskaraz egitea gelan taldeka daudenean baita irakaslea taldetik kanpo egonda ere
- Ikasleen artean euskaraz egitea gelan denbora tarte batean (goiz osoa, egun osoa, aste bat...) baita irakaslea taldetik kanpo dagoenean ere.
- Ikasleen artean euskaraz egitea ikastetxeko eremu osoan denbora tarte batean baita irakaslea taldetik kanpo dagoenean ere.

Hainbat motatako **prozedurak**, helburu zehatz horiek lortzeko

Haur Hezkuntzan	Lehen Hezkuntzan
• Mezua ematea	• Mezua ematea
• Elkarrizketak sortzea	• Eredua ematea
• Elkarrizketa horietan eragitea	• Banakakoekin elkarrizketak sortzea
• Ahalegina eskatzea	• Ikasleen arteko elkarrizketak sortzea
• Ahalegina baloratzea	• Ahalegina eskatu

	<ul style="list-style-type: none"> • Ahalegina baloratu <p>Prozedura horien deskribapena</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Mezua ematea: proposatutako helburua zein den argi aurkeztu, horren zentzua azaldu, ahalegina eskatu, espektatiba baikorra erakutsi, laguntza eskaini eta ikasleak animatuz. ○ Elkarrizketak sortzea: asko, egunero, laburrak ez, zailtasunak dituztenei arte hartzeko laguntza eskaini, ahalegina baloratu ○ Elkarrizketa horietan eragitea:(ikasleen artean hitz egin dezaten eragitea)ikasleen arteko elkarrizketa sustatu eta bideratu (gelan zein gelaz kanpo) ○ Ahalegina eskatzea: beharrezkoa balitz helburua gogoraraziz edota ez ulertuarena eginez ○ Ahalegina baloratzea: errefortzu positiboa ematea <p>HHko berariazkoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eredua ematea: elkarrizketetan parte hartzeko behar dituzten hizkuntza baliabideen ereduak eskaini, zuzenean (elkarrizketa egoeran bertan) eta zeharka (abesti, ipuin, marrazki bizidun eta abarren bidez) • Banakakoekin elkarrizketak sortzea. Eta horietan laguntzeko estrategiak baliatzea: irakasleak esandakoa errepikarazi, hoberen egokitzen zaien galdera-mota baliatu (itxia, itxia aukerak eskaintzen dituen, itxia erantzun luzea eskatzen duena, irekia erduekin edo irekia) • Ikasleen arteko elkarrizketak sortzea, jarduera aproposak baliatuz edo moldatuz, eta esku hartzen laguntzea: irakasleak esandakoa errepikarazi; elkarrizketa bideratzeko ereduak eskaini eta ,batzuetan, errepikarazi, aukerak eman eta eztabaidan jarri... <p>Erabakitakoa aplikatu eta horren jarraipena egin:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasturte hasieran, ikasleekin lanean hasi aurretik <ul style="list-style-type: none"> ○ Oinarriak gogoraraziko dira. ○ Jarduera osagarrien ideia aztertuko da eta aukerak ikusiko dira. • Ikasturte hasieran, ikasleekin hasi ondoren: <ul style="list-style-type: none"> ○ Talde bakoitzerako helburuak eta prozedurak adostuko dira. ○ Jarduera osagarriak erabiliko ote diren erabakiko da: zein jarduera, nork eta noiz. • Ikasturtean zehar: <ul style="list-style-type: none"> ○ Gutxienez hiru hilean behin gaia aztertuko da bilera batean: ebaluazio egin, berdin jarraitu eta aldaketak egitea adostu... • Ikasturte amaieran: <ul style="list-style-type: none"> ○ Bilera batean ebaluazioa egingo da eta hurrengo ikasturterako urratsak erabakiko dira.
EMAITZAK	<p>Lorpen hauek izan dira</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxearen errealitatea aztertu • Ikas-talde bakoitzari egokitutako helburu zehatzak ezarri • Helburu horiei begirako prozedurak eta estrategiak adostu • Adostutako martxan jarri. Horren jarraipena egin <p>Irakasleria pozik dago egindako formazioarekin eta horren ondorioz abian jarri duten lanketarekin</p>
EMAITZEN AZALPENA	<p>Helburu zehatzak finkatzea eta estrategia konkretuak definitze. Espektatibak ajustatu eta egitekoa argitu</p> <p>Lidergoa, arduradunak</p> <p>Irakasleen talde-lana: hausnarketa eta erabakiak taldean bertan. Ikastetxean talde-lanerako ohitura</p>

D +	IKASLEAK, MOTIBAZIOA ETA JARRERAK: Zer egin eta nola? Euskara erabiltzea errazten ez duten egoeretan zein dira erabiltzaile aktibo izateko behar diren usteak (kontzientzia) eta gizarte trebetasunak (asertibitatea, enpatia, talde-presioari aurre egiteko ahalmena...) zer egin eta nola jokatu	
Izena Esperientziaren	<h1>EUSLIDERRAK</h1>	
Helburuak	Orokorra: - Proiektu honen helburua da hizkuntza aniztasunaren alde gogoz arituko diren pertsonak formatu eta aktibatzea. -	Zehatzak: - Hizkuntzen garrantzia azpimarratzea. - Ezinezkoa da mundu guztiak hizkuntza bakarra hitz egitea. - EAEko jende multzo batek nahiago dugu euskaraz aritzea. - Pertsona guztiek dute nahi duten hizkuntza hitz egiteko eskubidea, beti ere, tokian tokikoen kontra egin gabe. - Pentsatzea global, ekintza lokal. - Koherentziaren garrantzia azpimarratzea. - Euskara hizkuntza arrakastatsua da, irabazlea. - Gustatzen ez zaiguna aldatzea, eta dibertigarri egitea. - Hizkuntza eskubideak errespetatzea. - Euskal hiztunen kopurua nabarmendu. Pentsatu + Sentitu + Egin. Gai direla adieraztea.
TESTU INGURUA:	Berriz BHI. 150 ikasle; 25 irakasle. Ikasleen artean ahozko erabilera bultzatzeko ahalegin bereziaren lanaren barnean kokatzen da.	
DESKRIBAPENA	Zer egin: Ikasleekin batzar informatiboa eta 2-3 orduko hiru saio zuzenean egin dira. Aurretik irakasleek eragileekin harremanetan jarri ziren. Berriz BHI izan da eta 2013-14 ikasturtean; ekintza hau 2. hiruhilabetekoan gauzatu da. Eragileak: <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center; margin-top: 10px;">     </div>	



pentsatu + sentitu + egin

Metodologia:

Proiektu hau EHUko Gizarte Psikologia eta Giza Portaera Zientzien Metodologia Sailak erakundeetan Berrikuntzaren Kultura Sustatzeko 2003 urtetik hona garatu duen IVO – Incremento del Valor Organizacional proiektuan du oinarri metodologikoa.

Jasotzaileak:DBH 3-4.

Ekintza nagusiak:

- Hasiera eta amaierako galdetegiak.
- Eztabaidak ikasleen artean.
- Bideoak eta ppt-ak eragileen aldetik helburu zehatzak lantzeko, eztabaidak pizteko.
- Jolasak.
- Ikasleek zer egin ahal duten, nola jokatu ahal duten erabakitzeko erabakiak emari.
- Kamixetak logoarekin banatu.



<p>EMAITZAK</p>	<p>Oso ondo atera da.</p> <p>Saio motibagarriak, euskara gehiago egin dute, euskararekiko eta hizkuntzekiko jarrera hobetu dute. Haien arteko harremanak euskaraz ere izan ahal direla garbiago ikusten dute. Euskararen irudia munduan gehiago baloratzen dute.</p>
<p>EMAITZEN AZALPENAK</p>	<p>Ondo antolatutako lana da; eragileek ondo landuta ekarri dute dena. Askotan bezala, kanpoko pertsonen indar handiagoa izaten dute bertako 'betiko' irakasleek baino. Ez ohiko ekintzak erakarri izaten dute.</p>

D+	IKASLEAK, MOTIBAZIOA ETA JARRERAK: Zer egin eta nola? Euskara erabiltzea errazten ez duten egoeretan zein dira erabiltzaile aktibo izateko behar diren usteak (kontzientzia) eta gizarte trebetasunak (asertibitatea, enpatia, talde-presioari aurre egiteko ahalmena...) zer egin eta nola jokatu	
Esperientziaren izena	MOTIBAZIOA BULTZATZEKO ESTRATEGIAK (DBH) (EBETE:rekin egindako ibilbidea)	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak:
	EUSKARAREN ERABILE BULTZATU IKASTETXEAN (BAI IKASLEARENA BAI IRAKASLEARENA.)	
DESKRIBAPENA:	<p>Iñaki Eizmendik (EBETE) 3 saio klaustro osoari eman dizkio. bertan, euskararen erabilera bultzatzeko estrategia batzuk azaldu ditu.</p> <p>Lehenengo saioan ikastetxearen hausnarketa linguistikoa egin zuen, helburu orokorra ikastetxean ikaslek zein irakaslek euskara gehiagotan erabiltzea. klaustro osoa prest agertu da.</p> <p>Orain tutoreak Iñakik prestatutako ekintzak tutoretza orduetan lantzen hasiko dira. Geroago, 3 mintegi aukeratu ditugu (natura,gizarte eta matematikak) beste ekintza batzuk haien orduetan egiteko. 3 mintegi hauek aukeratu ditugu hauetako irakasle batzuk eskarmentua dutelako proiektu honetan.</p> <p>Tutore eta mintegi buruekin normalkuntza arduraduna biltzen da, ekintzak azaltzeko.</p>	
EMAITZAK:	Orain arte egindakoarekin pozik gaude. alde batetik, klaustro osoak parte hartu duelako ikastaroan eta bestetik, dbh osoko tutoreak eta mintegi buruetako irakasleak ere prest agertu direlako. (betiere ikastetxearen egoera zein den jakinda).	


D-	IKASLEAK, MOTIBAZIOA ETA JARRERAK: Zer egin eta nola? Euskara erabiltzea errazten ez duten egoeretan zein dira erabiltzaile aktibo izateko behar diren usteak (kontzientzia) eta gizarte trebetasunak (asertibitatea, enpatia, talde-presioari aurre egiteko ahalmena...) zer egin eta nola jokatu	
IzenaEsperientziaren	EUSKARAREKIKO JARRERAK AKTIBATZEKO PROZESUAK	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak:
	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek dituzten euskararen aldeko jarrerak aktibatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikaskideen hizkuntza-esperientziaz eta bizipenez jabetzea (ulertzea). - Euskararekin (izan) duten esperientziaren inguruan hausnartzea eta euskara erabiltzeko erabakiak hartzea. - Konpromiso pertsonalak eta taldekoak hartzea.
TESTUINGURUA:	<p><i>Ingurune euskalduna Eustat-en datuen arabera (Euskaldunak 71,41%, euskaldun alfabetatuak 57,61% eta jatorrizko euskaldunak 60,10)</i></p> <p><i>Bigarren Hezkuntzako Institutua. 2005ean egindako BRANKAn aurrekoekin konparatuz ikasleen erabilera jaitsi zela konturatu ziren.</i></p> <p><i>Une hartan ELHUYAR Aholkularitzak ULIBARRI programarekin zuen hitzarmenaren baitan zenbait ikastetxetan "Euskararekiko jarreraren eraldaketa prozesuak" bideratzeko eskaintza zegoen, irakasle zein ikasleekin eta DBHko talde batekin aurrera eraman zen.</i></p>	
DESKRIBAPENA	<p><i>2006-2007 ikasturtean ELHUYAR aholkularitza eta Berritzeguneko HN Aholkulariaren laguntzaz DBH 3. mailako talde batekin hausnarketa prozesu bat aurrera eraman zen. Saiok eskola ordu barruan egin ziren eta tutoreak eta HN Batzordeko bi kidek ere parte hartu zuen lau saioetan horretarako egin behar ziren ordutegi aldaketak eginez.</i></p> <p><i>Hausnarketaren saio hauen helburuak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskararen inguruko hausnarketa sakona egitea maila pertsonalean eta taldean - Euskara gehiago erabiltzeko baldintza subjektiboak lantzea. - Euskara gehiago erabiltzea ikasleen erronka izatea. - Aurrera begira euskara gehiago erabiltzeko konpromisoak hartzea. <p><i>Saio hauetan Reflect Ekintza ikuspegiari oinarritzen diren talde dinamikak erabili ziren, erraz ulertzekoak eta partaidetza errazten dutenak direlako.</i></p>	

EMAITZAK	<p>2006-2007 ikasturteko prozesuan egindako hausnarketaren ondorioz ikasleek beraien arteko euskararen erabilera sustatzeko konpromisoak hartu zituzten eta inguruan eragin dezente izan zuten. Ikastetxean nabaritu zuten euskararen erabilera areagotu zela.</p> <p>2007-2008 ikasturtean aurreko urteko emaitzekin animatuta prozesua DBH 3. mailako talde guztietan aurrera eramateko plangintza egin eta burutu zen. Oraingoan prozesuak ez ziren hain arrakastatsuak izan. Saiok ez ziren hain ondo joan eta erabileran ez ziren aurreko emaitzen antzekorik lortu.</p>
EMAITZEN AZALPENA	<p>Lehen urtean talde bakarrarekin aritzeak eta ELHUYAR aholkularitzaren laguntza izateak gauzak asko erraztu zituen. Tutorea bertan egoteak ere ikasleen aurrean saioei nolabaiteko seriotasuna eta indarra eman zien.</p> <p>Bigarren urtean lan asko egin nahi izan zen denbora gutxian. Aurreko urtean hain ondo atera zena berriz ere erraz bideratuko genuela pentsatu zen baina ez genituen gauzak ondo bideratzeko modurik egin. Berritzeguneko Aholkulariak eta HN Batzordekide batek bideratu zituzten saioak. Saioa hauetan tutoreak ezin izan zuten parte hartu ordutegiak moldatzea oso zaila izan zelako. Bestalde saio guztiak aste pare batean txertatu ahal izateko ordutegi trinko samarra egin behar izan zen, batzuetan egun berean bi talderekin arituz, bat jolastordu aurretik eta beste bat ondoren</p> <p>Ausartegiak izan ginela esan daiteke eta zailtasunak aurreikusi gabe hasi ginen prozesua aurrera eramaten. Guztiengana iritsi nahi izateak gauzak ongi egitea eragotzi zigun.</p>

E+	IRAKASLEAK, HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA: Zer egin eta nola jokatu prestakuntza erabaki pertsonal izatetik erabaki instituzionala izatera igarotzeko, ikastetxean “Hizkuntza Kalitatea Ziurtatzeko Prestakuntza Plana” izatera ailegatzeko, alegia.	
Esperientziaren izena	IRALE IKASTAROAK: EUSKAL KURRIKULUMA, TELP, HITANOA	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak :
	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleon etengabeko formakuntza. - Norbere eta ikastetxeko beharrei erantzutea. 	<ul style="list-style-type: none"> Euskal kulturaren inguruan hausnartzea. - Euskararen erabileraren inguruko kontzientzia lantzea. - Ikasleen artean hitanoa sustatzeko oinarriak jartzea. Horretarako, irakasleok lehenik oinarrizko ezagutza lantzea. - Euskal literatura lantzeko baliabideak ezagutu.
TESTUINGURUA:	<ul style="list-style-type: none"> - Udalerri euskalduna da. Euskaldunen portzentajea % 89.8 da. Ikasleriaren % 86.81 jatorriz euskalduna da. Ikasleen mintzagramen batez bestekoa % 88.47da. - Ikastetxea D eredukoa da. Lerro bakarrekoa. 120 ikasleren bueltan dabil. - Irakasleria (jardun erdia dutenak, herenak etab. denera 22 inguru) guztiak euskaldunak dira. Gehienak herrikoak edo inguruko eskualdekoak. Irakasleen arteko erabilera %100 da (mintzagrama) - Ikastetxea hasiera hasieratik dago Ulibarri programan. HNBan zenbaitetan gurasoek parte hartu izan dute, edo gutxienik, HNParen gertuko informazioa badute. - Ikastetxean, prestakuntza etab. oro har asteazken arratsaldetan burutzen da. - Urteroko Berriztatze eta prestakuntza proiektuetan tarte bat ematen zaio HNParekin lotura duen prestakuntzari. Beti garbi izan du klaustroak irakasleak eredu direla eta kalitatezko hizkuntza eskaini behar zaiela ikasleei. Etxetik dakarten euskara aberats hori areagotzen eta esparru informalean lantzen jarraitu behar dela eta horretarako irakasleen prestakuntza etengabea beharrezkoa dela. Beste proiektuekiko lotura erabatekoa da. Urteko planean txeratzen dira ekimen guztiak, klaustro osoak erabakita. Prestakuntza saio guztiak, oro har, jardun osoa duten irakasleek egiten dute. - Azken urteetan herriko bilakaera linguistikoaz (arnasgune izaeraz) hainbat hausnarketa saio bideratu dira, bai irakasleekin, bai gurasoekin. Formakuntza saioetako kideek hartu dute parte. 	

DESKRIBAP ENA	<p>Euskararen kalitatea zaindu eta areagotzea eta euskal kulturaren berri izan eta ikasleei transmititzearen helburu partekatuak dira klaustroan. Horko gabeziak estaltzeko, urtero prestakuntza saioak antolatzen dira IRALEko H ikastaroen eskaintza baliatuz.</p> <p>HNBak proposatzen du ikasturte horretan egin daitekeen ikastaroa, jasotako iradokizunak eta beharrak kontuan hartuz. Klaustroan gaia aukeratu eta adostu egiten da. Eskabideak epe barruan egiten dira. Ondoren, HNPko urteko planean, ikastetxeko berriztatze proiektuan etab. jasota geratzen da. Zuzendaritzak hartzen du ekimena burutzeko ardura.</p> <p>Urteko Planean ezarritako helburuei jarraituz, eta ikastetxeko Formakuntza planean adostu bezala, asteazken arratsaldeetako prestakuntza saioen barnean H400 ikastaro bat antolatu dugu urtero. Hamar orduko ikastaroa, bi orduko bost saiotan.</p> <p>Lanaldi osoa duten irakasle guztiek hartu izan dute parte.</p> <p>Azken urteetan egindako ikastaroak:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Hitanoa (Lazkaoko Maizpide euskaltegia) - TELP. (EMUN) - Euskal Curriculuma (EMUN) - Euskal Literatura (ez zen burutu emailerik ez zelako aurkitu)
EMAITZAK	<p>Gure nahiak ondo bete dira gehienetan. Hala ere, urte batean ezin izan genuen ikastaroa burutu. Izan ere, ez genuen emailerik topatu, guk eskatutakoa eskaintzeko.</p> <p>Orokorrean balorazio ona egiten dugu.</p> <p>Aipatutako gai guzti hauen inguruan hausnarketa egiteko aukera izan dugu.</p> <p>Saioak atseginak eta praktikoak izan daitezten ahalegindu gara, emailerekin alde zurretik adostuta.</p> <p>Azpimarratu nahi genuke, astero ikaslerik gabeko arratsalde bat edukitzeak asko errazten duela era honetako saioak baldintza egoki eta erosoetan burutzea.</p> <p>Lehenengo urteetan irakastorduz kanpo egiten genuen, eta oso nekagarria egiten zitzaigun.</p>
EMAITZEN AZALPENA	

E+	IRAKASLEAK, HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA: Zer egin eta nola jokatu prestakuntza erabaki pertsonal izatetik erabaki instituzionala izatera igarotzeko, ikastetxean “Hizkuntza Kalitatea Ziurtatzeko Prestakuntza Plana” izatera ailegatzeko, alegia.	
Esperientziaren izena	AKATSAK ZUZENDU	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak :
	- Hizkuntzaren zuzentasuna bermatzea	- Irakasleok sarritan egiten ditugun akatsak zuzentzea.
TESTUINGURUA:	D eduko ikastetxe integrala. Irakasleei zuzendutako jarduera da, kurtsoan zehar egitekoa.	
DESKRIBAPENA	Jasotzaileak: irakasleak Markatutako maiztasunari jarraituz, euskara batzordeko bi kidek prestatzen dute dokumentu bat. Horretan askotan errepikatzen ditugun akatsak jasotzen dira eta zuzenketa azpimarratzen da. Dokumentu hori e-mailez bidaltzen da irakasle guztiei. Jarduera ikasturtean zehar egiten da, hamabostero bidaltzen dugu dokumentu berri bat.	
EMAITZAK	Ikasturte honetan martxan jarritako jarduera da. Oso balorazio positiboa egiten ari da. Egiten ditugun akatsen kontzientzia hartzea eta hizkuntza zuzentasunez erabiltzearen garrantziaz ohartzea.	
EMAITZEN AZALPENA	Oso praktikoa da eta irakasleok, orokorrean, gustura jasotzen dugu laguntza.	

	IRAKASLEAK, HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA: Zer egin eta nola jokatu prestakuntza erabaki pertsonal izatetik erabaki instituzionala izatera igarotzeko, ikastetxean “Hizkuntza Kalitatea Ziurtatzeko Prestakuntza Plana” izatera ailegatzeko, alegia.	
izena Esperientziaren	<h1>IRALEKO H IKASTAROAK</h1>	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak:
	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleen Hizkuntza prestakuntza hobetzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleak bere lana ondo burutzeko hizkuntza prestakuntzak duen garrantziaz jabetzea. - Irakasle guztiak hizkuntza irakasle direla konturatu eta eguneroko lanean horrela jokatzeko.
TESTUINGURUA:	<p>Ingurune oso euskalduna Eustat-en datuen arabera Euskaldunak 80% inguru Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua.</p> <p>Irakasle guztiak HE2 dutenak baina aspaldi Hizkuntzaren inguruko prestakuntzarik jasotzen ez dutenak.</p>	
DESKRIBAPENA	<p>Ikasturte bakoitzean IRALE programan parte hartzeko eskabidean egin behar den garaian hurrengo urtean ikastetxean zein H ikastaro antolatuko diren erabakitzen du Hizkuntza Normalkuntza Batzordeak eta honen baitan eskabideak egiteko gomendioa egiten zaie irakasleei.</p> <p>Guztiak HE2 dutenez eguneratzeko ikastaroak antolatzen dira Hizkuntza Normalkuntza Batzordean gaiak adostuz. Besteak beste hauek izan dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskaltzaindiako azken arauak - Hitanoaren erabilera - Soziolinguistika: kontzeptu nagusiak 	
EMAITZAK	<p>Helburua ahalik eta irakasle gehien parte hartzea izan arren ez da lortzen betiko 8-10 irakasletatik aparteko beste inork ikastaro horietan izena ematea. Horiek bestalde bere kontura ere aritzen dira bere Hizkuntza Prestakuntza hobetzen. Beti berdinek parte hartzeak porrot sentazioa uzten du Hizkuntza Normalkuntza Batzordean.</p> <p>Erronka izena ematen ez duten horiek ere parte hartzea izango litzateke, baina ez dago asmatzeko modurik.</p>	

EMAITZEN AZALPENA

Ikastaroak zer gairen inguruan antolatu behar diren galdetzen denean oso gutxik erantzuten dute, ondorioz HN Batzordeak erabakitzen ditu gaiak.

Institutuak ez du irakasleen prestakuntza plan argirik, bakoitzak bere "beharren arabera" egiten ditu ikastaroak eta ez dago irizpide argirik.

F+	IRAKASLEAK, HIZKUNTZA ERABILERA: Irakasleok erabiltzaile (ikasleekiko harremanetan eta irakasleon artean) eta erabileraren eragile. Honetan aurreratzeko zer egin eta nola jokatu?	
Esperientziaren Izena	IRAKASLEOK (ETA GAINERAKO LANGILEAK) ERABILTZAILE ETA ERABILERAREN ERAGILE	
Helburuak	Orokorra: Ikasleen erabilera hobetze aldera, irakasleon hizkuntza-jokabidea aztertzea eta optimizatzea	Zehatzak: <ul style="list-style-type: none"> • Irakasleon eta gainerako langileen hizkuntza jokabidea aztertu eta hobetzeko alderdiak identifikatu • Horietan eragiteko bideak adostu eta aplikatu
Testuingurua: Ikastetxearen	<p>Herria: 60000 biztanledun herria, %36 euskalduna</p> <p>Ikastetxea: DBHko ikastetxea, handia. 61 irakasle, azken ureotan nabarmen handitu da. Duela 30 urte sortua, herrian D eredia sare publikoan eskaintzeko. Hasieratik Ulibarrin. Ikastetxe bizia, berrikuntza pedagogikoari begira erronka askori heldu diona. Talde lanean jardutek ohitura duena</p> <p>Egitasmo hau 2011/12ko Ebaluazio Diagnostikotik (ED) eta Hobekuntza Planetik abiatu zen .</p> <p>Euskarazko Hizkuntza Komunikaziorako Gaitasunean, oro har, emaitza onak ateratzen baziren ere, irakasleak kezkatuta ikasleen artean gaztelania nagusi delako</p> <p>Aurretik, ibilaldia egina zuten irtenbide bila:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 2008 arte. Familia, ikasle eta herriarengan jarri erantzukizuna: <i>Guk euskaraz irakasten dugu; Ikaslea da egiten ez duena; Familiak ez du gehiegi laguntzen; Izatekotan, hizkuntza irakasleena da euskararen erantzukizuna</i> ▪ 2009-10ean, Irtenbidea curriculumean bilatu. PRESTAKUNTZA: <i>Mintzamena kokatzen curriculum berria</i>. Esperientziak eta proposamenak ezagutu eta irakasleen artean aztertu eta hausnartu. Zenbait ondorio adostu zituzten eta bi dokumentutan islatu: <i>Adosteko moduko 10 puntu</i> eta <i>Komunikazio gaitasuna jakintza arlo eta irakasgaietan. Denok hizkuntza irakasle</i>. <p>2011n hasi beste urrats bat, irakasleengan eta gainerako langileengan eragin nahian: Langileok eragile, langileon jarrera eta jardueretan irtenbideak bilatu.</p>	
DESKRIBAPENA	<p>Emandako urratsak:</p> <p>2011/12:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ ED eta 12/13ko Hobekuntza planean erabakia: Irakasleon eta gainerako langileon jarrera eta jardura aztertzea. Honela definitu zuten asmoa: <i>“Profesionalen euskararen erabileraren diagnostikoa egiteko tresna eraginkor bat sortu eta erabili, hizkuntzarekiko jokabide desegokiak antzemateko eta bideratzeko”</i> ▪ Profesionalen hizkuntza-jokabidea azterketarako tresna bat diseinatu (HN aholkulariaren laguntzarekin, <i>GelaArgazkia</i> oinarri), kolektibo bakoitzaren ezaugarrietara egokituta: irakasleak, jangelako langileak, kirol begiraleak, atezaina eta bulegaria. Irakasleen kasuan 19 eremu aztertu ziren. <p>2012/13</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Diagnosi tresna langile guztiei pasa. ▪ Emaitzak aztertu, eremu ahulenak identifikatu eta hobetzeko proposamenak landu eta aplikatu. ▪ Ikasturte bukaeran diagnosi-tresna berriro pasa; izandako aurrerapena ikusteko <p>Egindakoa zehatzago azaltzen</p> <p>Diagnosian profesionalen hizkuntza jokabidearen alderdi ugari eta askotarikoak aztertu</p>	

	<p>ziren. Esaterako , Irakasleen kasuan, hiru ardatzotan hemeretzi_eremu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakasleok hizkuntza-erabiltzaile: <i>Nola hitz egiten diegu... Nola hitz egiten digute...</i> ▪ Irakasleon bakarkako lana ▪ Irakasleok erabileraren eragile <p>Emaitzak aztertu ondoren eremu ahulenak identifikatu eta horietan eragiteko erabakia hartu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Motibatu: Euskara balioetsi ▪ Inputa aberastu ▪ Egoerak sortu eta erabilera kitzikatu ▪ Irakaskideekiko hizkuntza jokabidea <p>HNbak eragiteko proposamena prestatu zuen (HN aholkulariaren laguntzarekin), Pedagogia Batzordean sozializatu eta mintegietan aztertu eta neurriak hartu ziren. Hona hemen erabakitakoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Motibatu: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bizipen baikorrak atseginak askotarikoak euskaraz (ere) ahalbidetu ▪ Euskararekiko eta euskarazko produktuekiko gogo-bizitasuna konpartitu ▪ Hizkuntza autoezagutza, autokonfiantza (segurtasuna), autoestimua... sustatu. ▪ Hizkuntza eta hitzuneakiko hautemateak, usteak, sinesmenak... (Hizkuntza Jarrerak) landu ▪ Euskararen gizarte egoera baloratu ● Inputa aberastu: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakasleon berbaldia ahalik eta aberatsena izan dadin ahalegindu ▪ Beste ahotsak gelara eraman zuzenean ▪ Beste ahotsak gelara eraman, dokumentu edo grabazioen bitartez ● Egoerak sortu eta erabilera dinamizatu: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gelako dinamika interakzioan-komunikazioan oinarritu ▪ Ohiko interakzioetan Ikasleak euskarara ekartzen saiatu ▪ Ikasle-irakasle elkarreragina sustatu (aukerak sortu, ikasbide komunikatiboak, metodologia kooperatiboa, ▪ Erabiltzaile aktiboaren eredua eskaini . ▪ Irakasle kontzientzia landu eta nahimena elikatu ● Irakaskideengan: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Gure arteko harremana euskaraz izan, ikastetxeko eremu guztietan ▪ Erregistro ezberdinak baliatu ▪ Adierazpide aberatsak eta bariatuak erabili
EMAITZAK:	<p><u>Lorpenak, irakasleen artean</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ● Gure galdetegia erantzuteak berak izan zuen eragina. ● Mintegitan jarduera egokienak aukeratu ziren eta erabakitakoari ekin. ● Mintegiak berak jarraipena eta ebaluaketa egin du <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasturte bukaerako diagnosi berriak .landutako eremuetan, orokorrean, hobekuntza eman zela islatu zuten. Hobekuntza nabarmenena bi eremuotan: <i>Motibatu: euskara balioetsi eta Inputa aberastu</i> <p><u>Irtenbide bila urrats gehiago</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ● 13/14 Hobekuntza Planaren Jarraipena: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Pedagogia Batzordean eta Urteko Planean planteatu ▪ 10 orduko prestakuntza klaustro osorako: “Erabileraren ontzia bete. Euskararen erabileran eragiten” EBETerekin. Adostutakoa Ikasturteko Planean txertatu zuten ● 13/14 Hobekuntza Plan berria. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Helburu nagusia: Hizkuntza komunikazio gaitasuna hobetzea: Mintzamena, Idazmena eta bereziki irakurriaren ulermena. Arlo eta irakasgai guztietan.. Metodologia anitzak baliatuz. Praktikan jartzeko zailtasunak aztertuz eta

	<p>irtenbidea bilatuz</p> <ul style="list-style-type: none"> • 14/15 Hobekuntza Plan berrian erabakitakoa gauzatzeko: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Prestakuntza-jarduera berria: 'Arloetan ere komunikazioa landu' (IRALEko I ikastaroa), komunikazio trebetasunak arloetan lantzeko duen garrantziaz jabetzeko, komunikazio trebetasunak ikasgaietan lantzeko oinarriak finkatzeko eta proposamenak eta baliabideak bilatzeko. Prestakuntzaren zatirik garrantzitsuena Irailean, ondorioztatutakoa ikasgaietan martxan jarri. Pedagogia Batzordeak aplikazioaren jarraipena egin <p><u>Gainerako langileak: diagnosiaren emaitzak eta esku hartzea</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Atezaina eta bulegariaren kasuan emaitza onak, eragin beharrik ez. Jangelako langileengan ere emaitza onak, eragiteko aukera gutxi, HNATak zuzenean. • Eskola kirolean asko hobetu behar. Arduradunarekin hitz egin zuten, erronkari ezin ziola ekin pentsatu eta lana utzi zuen, beste norbait kontratatu zuten, hizkuntza-baldintzak argi zehaztuta
Emaitzen azalpena	<p>Ikastetxean irtenbidea bilatzeko asmoa argia, urteetan zehar urratsak ematen. Ikastetxean ondo txertatua:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hobekuntza Planaren barnean, gai nagusienetako bat • Prestakuntza-prozesu jarraitua • Zuzendaritza taldearen lidergoa. HNPren zentralitatea ikastetxean: HNATa zuzendaritza taldean dago (AJAn erabakita), urtetan zuzendaria bera izan da HNATa <p>Prestakuntza ekintzek praktikara bideratuak, ondorioak praktikara eramateko erabakiak hartu eta gauzatu egiten dira</p>

F+	IRAKASLEAK, HIZKUNTZA ERABILERA: Irakasleok erabiltzaile (ikasleekiko harremanetan eta irakasleon artean) eta erabileraren eragile. Honetan aurreratzeko zer egin eta nola jokatu?	
Esperientziaren izena	TELP IKASTAROA, , IKASLEEN ERABILERAN ERAGITEKO ESTRATEGIEN BILA	
Helburuak	Orokorra: Ikasleen gaztelaniaren erabileraren aurrean nola jokatu	Zehatzak: - Gaztelaniaren erabilera nola hartu? Gazteak gaztelaniaz ari direnean, edo zuzentzen zaizkigunean zer nolako estrategiak garatu. - Euskararen erabilera era asertiboan planteatu - Euskara jakitea eta euskal kultura ezagutzea balio erantsi bezala planteatu
Testuingurua:	<ul style="list-style-type: none"> - Udalerriko euskaldunen portzentajea % 39koa da. Ikastetxeko ikasleen jatorrizko hizkuntza euskara %44,50. Ikasleen mintzagramako datuak batuz beste % 46. - DBH independientea. 3-4 lerro. 14 gela. 300 ikasle inguru. - D ereduko ikastetxea. 40 bat irakasle. Guztiak euskaldunak. Bi langile ez dozente. Horiek ere euskaldunak. Irakasleen arteko erabilera, oro har, euskaraz burutzen da. - Ikastetxea aspalditik Ulibarri programan. HNBan parte hartzen dute bai gurasoek, bai ikasleek (ikasturte batetik bestera aldeak egoten badira ere) - Ikasleen euskararen erabilera txikia dela kontsideratuz planteatua. Geletatik kanpo ikasleen joera gaztelaniaz egitearena kezka delako. Talde batetik bestera alde txikiak baldin badaude ere, nahiko orokortua jokaera hori. Behar horri nolabaiteko irtenbidea eman nahirik antolatu zen ikastaroa. 	
DESKRIBAPENA:	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastaroa egiteko proposamena HNBtik atera zen. - IRALE deialdia aprobeztatuz. IRALE bitartez eskatua eta EMUN taldekoek emanda. - Irakasleen formazioa : 10 orduko ikastaroa - Parte-hartzaileak: 12 irakasle (klaustroaren herena). Parte hartu zuten irakasle guztiak finkoak dira, ikastetxean plaza dutenak. Gai horiekin sentsibilizatuenak. - Ikastetxean asteazken arratsaldeak hainbat lanetarako erabiltzen dira: klaustroak egiteko, ebaluazio bilerak, prestakuntza saioak etab. Prestakuntza hori aurrera eramaten zen bitartean, beste irakasleak bakarkako lana egin zuten edota etxera joan ohi ziren. - Ikastetxean prestakuntza saio batzuk derrigorrezkoak dira, irakasle guztiek parte hartzen dute (Elkarbizitza etab.) Prestakuntza hori (TELP) borondatezkoa izan zen. IRALEko ikastaroa egiteko, taldea osatzeko, partaideen bila ibili ziren HNBkoak, izena eman zezaten animatuz. Kanpaina egin zen. - Ikasturte hasieran burutu zen (irail- urria), asteazken arratsaldean, bi orduko bost saio. - Norberaren hizkuntza portaeraren azterketatik abiatuz, jokabide horien zergatiak aztertu genituen eta aldaketak gauzatzeko baliabide praktikoak landu 	

	ziren, adibideekin jokatu.
EMAITZAK:	Ondo. Bertan geunden irakasleok euskararen erabilera bultzatzeko sentsibilitatea bagenuen eta ahaleginak egiten ditugula jabetu ginen. Erdipurdi. Ikastaroan erabili ziren hainbat adibide eta estrategia ez ziren ikastetxeko errealitatera egokitzen. Merkataritzako, tren geltokiko eta antzeko egoeretako adibideak landu genituen. Ikastetxean bertan ematen diren adibideak beharko lirateke. Hobetzeko, beraz, landu daitezkeen adibideak ikastetxeko egoerekin lotzea. Errezetak nahi genituen. Lorpen bat izan zen egiten genuena ondo bideratuta zegoela konfirmatzeko. Ondo ari ginela baieztatuz.
Emaitzen azalpena	Parte hartu duten irakasleek, pertsonalki, formazio interesgarria jaso dute, baina ikastetxeko klaustroan ez du eraginik izan. (norberaren prestakuntzan geratu da). Ez da irizpiderik zehaztu, klaustro mailan, egoera horien aurrean nola jokatu jakiteko. Ikastaroa egin zutenen baitan geratu zen han landutakoaren informazioa. Klaustroan, bi aipamen laburretara mugatu zen, urteko memoria egiten denean etab. Ez zen esperientziaren berri zehatzik eman edota landu.

2.3 TELP I: HASTAPENA (H410-I, Irale)

2.3.1 Helburua eta hartzaileak

Tailer honen helburua, esaldi batean laburbildu beharko bagenu, hauxe azpimarratuko genuke:

Euskaraz egiteari lotutako deserosotasuna murriztea, hizkuntza jokabide asertiboari esker gusturago egotea eta horretarako baliabide gehiago sortzea.

Tailerrean parte hartuko duten pertsonen euskaraz hitz egitean duten deserosotasuna gutxituko dute eta horrela, euskaraz gehiago egiteko aukera izango dute. Horretarako, oso baliagarriak izango dira maila kognitiboan, emozionalean eta fisiologikoan eskainiko diren baliabideak.

Tailerreko hartzaile potentzialak euskaraz egiteko gogoia duten hiztunak (hizkuntza kontzientziadunak) izango dira. Oinarrizkoa da pertsonen euskararekiko kontzientzia izatea. Kontzientzia horretatik abiatuta, baliabideak eta estrategiak eskainiko zaizkie, euskaraz gehiago eta erosoago hitz egiteko. Bestalde, tailer bakoitzean gehienez 20 pertsonak parte hartzea aurreikusi dugu.

2.3.2 Edukiak, saioen maiztasuna eta iraupena

Tailerrak 10 ordu irauten du eta 3 saiotan banatuta dago. Ondoren saio bakoitzean landuko diren edukiak aurkezten ditugu:

1. saioa:

1. atala: oinarri teorikoak

Sarrera. Nori zuzendua dagoen argitu, helburuak ezagutzera eman, funtzionamendua azaldu (atsedenaldiak, parte-hartzea, egingo dugunaren berri eman...), lanerako premisak jarri (terminologia, kasu zehatzen gaineko lanketa...), norberaren hizkuntza portaeraren azterketa, norberarentzako gida izango den galdetegi baten bidez.

Oinarri teorikoa. Atal honetan hiru helburu hauek landuko dira: Hizkuntza jokaeraren gaineko gogoeta eginarazi, nola ikasi dugun eta zein mekanismok iraunarazten duen erakutsi eta intsumisioa jokaera asertibo gisa aurkeztu.

Ariketaren azalpena. Aste guztian zehar egin beharko duten ariketa zein izango den azalduko zaie.

2. atala: Ikuspegi estrategikoa

Interakzio Pertsonalen ikuspegi estrategikoa. Gatazka prozesuen ikuspegi sistemiko bat erakutsi, pertsonen arteko interakzioan ikuspegi estrategikoa bat erakutsi, pasadizo eta gertaeren azalpena modelatu, intereseko egoerak identifikatu eta parte-hartzea sustatu

3. atala: Baliabideak

Baliabideak (I). "Baliabide" esatean zer ulertzen dugun azaldu, jokaera aztertzeke hiru mailak erakutsi, baliabideak eskura jarri, norberaren aurreiritziak identifikatu eta desmuntatzen erakutsi, erregistroen baliagarritasuna erakutsi, arrakastazko egoerei arreta berezia jarri. 13 www.emun.com

2. saioa:

Dramatizazioak (I). Bizitako egoerak eta egungo jokaerak aztertu eta alternatiben iradokitzea, hizkuntza Interakzioko egoerak bizitzeko beste moduak badirela erakutsi eta parte-hartzea sustatu.

Baliabideak(II). Aktibazio maila jaisten eta emozioak ordezkatzeko erakutsi eta arrakasten egunerokoa osatu, hizkuntza gatazka gertatzen den kasuetan aspektu positiboetan zentratzea lagunduz. Horretarako, erabilgarritasuna frogatuta duten baliabideen bankua osatuko da.

Dramatizazioak (II). beste norbaiten lekuan jardutea / jokatzeko. Jada azaldutako egoerak aldatzea, Emozio aldatzea praktikatu, hizkuntza interakzioko egoera jolas gisa bizi

4. atala: Aniztasuna

Aniztasuna, zailtasuna eta progresibitatea. Hizkuntza aldaketa emateko helburuak finkatu nahi dira, egoera errazak eta zailtasuna ertaineko egoerak identifikatuz. Egoera guztiak ez dira berdinak eta beraz, irtenbiderako estrategia desberdinak baliagarri izan daitezkeela erakutsiko da.

3. saioa:**5. atala : Korbergentzia geruzak**

Korbergentzia mailak. Komunikazio egoeren ikuspegi sistemiko bat erakutsi, norberak euskaraz egiten duen erabilera pixkanaka-pixkanaka hazi daitezkeela erakutsi, norbere buruarentzat bezala besteentzat ere aldaketarako helburu zehatzak jarritz.

6. atala: Asertibitatea

Komunikazio asertiboa. Portaera aldaketak nola eskatu erakutsi, eztabaidatu gabe eta hika-mikan erori gabe kritika eta erasoei aurre egiten ikasi eta egoera guztiak berdinak ez direla eta beraz, irtenbiderako estrategia desberdinak baliagarri izan daitezkeela erakutsi.

7. atala: Norberaren helburuak zehaztea

Hasieran betetako **galdetegia** erabiliz, norberaren espazio linguistikoa handitzeko helburuak zehaztuko ditugu.

8. atala: Ideia nagusiak eta ondorioak

Ondorioak. Oinarrizko ideiak errepasatu eta hedapen efektua azpimarratu.

Amaiera emateko tailerra bera ebaluatuko da, hiru egunetako jarduera nolakoa izan den jakiteko.

Saioen maiztasuna eta iraupena

Tailerra hiru saiotan banatu dugu, lehenengo biak 3,5 ordukoak izango dira, eta azkena 3 ordukoa. Hala ere, bertaratuko diren kideen arabera, saioen iraupena eta maiztasuna aldatzeko malgutasuna izango da. 14
www.emun.com

2.3.3 Ebaluazio bidea

Tailerraren ebaluazioa ariketa baten bidez egingo da. Ariketa hau taldeka edo banaka egiteko aukera izango da, tailerrean parte hartzen duten irakasleen interesen eta egoeraren arabera.

Ariketaren helburua **tailerrean ikasitakoa praktikan jartzea** izango da eta teorian landutakoa errealitatean kontrastatuko da. Bide batez, irakasleak beraiek izango dira tailerrean ikasitako baliabideak osatuko dituztenak, beraien esperientziei esker.

Hizkuntza aldaketa emateko eta euskara gehiago erabiltzeko helburu batzuk jartzeko eskaera egingo zaie 1. saioan eta helburu horiek betetzeko ahalegina egin beharko dute beraien eguneroko bizitzan aste betean, zailtasun maila kontuan hartuz, ikasitako baliabideak praktikan jarritzeko eta jokaera asertiboa bultzatuz.

Lanean, arrandegian, udaletxean, kalean... euskara erabiltzeko ahalegina egiten dutenean hainbat arrakasta lortuko dituzte eta horiek **arrakasten egunerokoa** jasoko dira. Azken saioan irakasle edo talde bakoitzak izandako esperientzietatik ateratako ondorioak azalduko ditu eta saioan ondorio orokorrak aterako dira, arrakasten egunerokoa osatuz.

Amaiera emateko **tailerra bera ebaluatuko** da, hiru egunetako jarduera nolakoa izan den jakiteko.

G +	IRAKASLEAK, PARTE HARTZEA ETA INPLIKAZIOA: Zer eta nola?	
Esperientziaren izena	<h2 style="text-align: center;">IRUDIMENEZKO BIDAIA</h2>	
Helburuak	Orokorra: <ul style="list-style-type: none"> - Euskararen erabilera areagotu eskolako esparru guztietan - Euskal kulturaren murgildu eta ezagutza handitu - Ikasleen protagonismoa aktibatu - Normalkuntza proiektuan kide guztien inplikazioa indartu eta zabaldu 	Zehatzak: <ul style="list-style-type: none"> - Irudimenezko bidaiak antolatu. - Ikasleen talde eragilea sendotu, planifikazioan parte hartu eta motibazio ekintza batzuk haien bidez bideratu - Guztien partaidetza gauzatzeko zer egin dezaketen aztertu eta ekintzak diseinatu.
DESKRIBAPENA	<p>Orain dela 10 urte hasi ziren irudimenezko bidaiak antolatzen eta urtez urte finkatzen joan dira. Ikastetxe osoak parte hartzen du eta ikasturte bakoitzean bi bidai egiten dira, lehena urrian hasten da eta bigarrena martxoan. Gutxi gora behera hiru hilabeteko iraupena izaten dute.</p> <p>Bi bidai hauetan integratzen dira euskararen erabileraren eta euskal kulturaren gainean proposatzen dituzten ekintza guztiak.</p> <p>Bidaiak irauten duen bitartean, eskola osoko paisaia gaiaren arabera joaten da aldatzen. Geletan egiten diren lanak pasabideetan jartzen dira, eta eskolara etortzen diren pertsona erreferenteak, egiten diren tailerrak, esku-lanak, irteerak, gurasoentzako ekimenak ... gai horrekin lotzen dira.</p> <p>Bidaien gaiak: Euskal piratak, Mitologia ezagutzen, Nafarroako erresumara goaz, Sukaldarien mundura goaz, Euskal herriko natur guneak basorik baso goaz, Insektuen mundura goaz, Zirkura goaz ...</p> <p>Laukote taldea, normalkuntza batzordea, maiatzean datorren urteko bidaien gaiak zeintzuk izango diren aukeratzeko dituen talde honetan pentsatzen da, planifikatzen da, ideiak botatzen dira. Jarraipena eta ebaluazioa egiten du. Astean behin elkartzen dira</p> <p>Zortzikote taldea: zikloko arduradunak dauden taldea da, Laukote proposatutakoa aztertzen da, kontrastea egiten da, moldaketa batzuk proposatzen dira. Irakasle hauek bere zikloan zabaltzen dute, zer egingo den, nola, epeak ...</p> <p>Zuzendariak lehen klaustroan normalkuntza eskolako lehentasuna dela eta guztiek parte hartu behar dutela azaltzen du. Iaz, 2013-14 ikasturtean, klaustro erdia berria izan zen, eta bidai proiektuak egiten jarraitu zuten. Zuzendariak zortzikote taldean parte hartzen du eta HNATari egoera berezietan laguntza ematen dio.</p>	

	<p>Klaustroan era erakargarrian aurkezten dira bidaiak eta lanak banatzen dira. Taldeak antolatzen dira eta irakasleek aukeratzen dute zein taldetan sartzan diren dagokien eginkizuna prestatzeko: gaiari buruzko informazioa eta geletako taldeen izenak, musika, irudiak, muralak...</p> <p>Irakasleek gelan lan handia egin behar dute. Gela bakoitzak izen bat hartzen du, eta gaiaren gainean frogak prestatzen dituzte. Batzuetan errezeta bat azaldu, kanta bat abestu, txiste bat antzestu, pertsonai bati buruzko informazioa topatu eta biografia aurkeztu. Mural erraldoiak prestatzen dituzte informazio guztiarekin eta aurkeztu ondoren eskolako pasabideetan jartzen dituzte. Horiek egiteko tailerrak eta plastika orduak erabiltzen dira .</p> <p>Gaur egun, Haur Hezkuntzako irakasleek eta ikasleek ere parte hartzen dute. Bidaiaren aurkezpena beste egun batean egiten da. Ikastetxeko ikasle guztiak areto nagusian sartzan ez direlako.</p> <p>Ikasle talde eragilea: 5. eta 6. mailetako ikasleez osaturik dago. Hauek protagonismo berezia dute ideiak ematen, frogak prestatzen eta, bidaiak hasten den egunean, haiek dira besteen aurrean frogak, hau da egin behar dutena, azaltzen dutenak. HNATarekin bilerak izaten dituzte, 12:30tik-13:30era, lanaren arabera, batzuetan astero eta beste batzuetan maiztasun gutxiagorekin.</p> <p>Bidaiari hasiera emateko egunean ikasle guztiak areto nagusian elkartzen dira. Eskolako taldearen partaide direla sentitzen dira. Eskaileretan ikasle guztien argazkiak armiarma sare erraldoian kokatzen dituzte lantzen den gaiaren arabera jantzita...</p> <p>Gau egun jantokiko monitoreen inplikazioa ere lortu da. Langileentzako prestakuntza antolatzen dute Ttakunekin, Urtxintxarekin... horretarako dituzten 18 orduak aprobetxatuz. HNATarekin biltzen dira, plana partekatzen da eta bidaiak haiek bideratzeko ekintza batzuk proposatzen dira. Adibidez, elikadura piramidea ikasleei haiek azaldu, sukaldaritzarekin erlazionaturiko tailerrak haiek eraman...</p> <p>Herriko elkarteak batzuetan ekintzak antolatzen ditu bidaiaren gaiaren eta eskolaz kanpoko orduetan direnez herri osoari zabaltzen da.</p> <p>HNAT nor den zaintzen da eta karguan urte batzuk izaten ditu. Aldaketa dagoenean beste batzordekide batek hartzen du lekukoa. Hizkuntz Normalkuntza Arduraduna urte batzuk egoten da, ordezkapena batzordekide batekin egiten da.</p>
EMAITZAK	<p>Irakasleen partaidetza handia, baita langile ez irakasleena eta gurasoena ere.</p> <p>Ikasleek ez ezik irakasleek ere ondo pasatzen dute, gustura daude, harro sentitzen dira.</p> <p>Ikastetxea kokatuta dagoen guneko soziolinguistikoa kontuan hartuta ikasleek euskara asko erabiltzen dutela esan daiteke. Jantokian euskara gehiago erabiltzen lortzen ari da. Patioaren erabilera oraindik erronka da.</p> <p>Euskal kulturako hainbat gaien ezagutza lantzen dute.</p> <p>Ikasleak protagonistak sentitzen dira, ikasleen batzordean egon nahi dute, gaietan interesa adierazten dute, motibaturik daude ezartzen zaizkien frogak egiten, erronka gainditu nahi dute. Alaitasuna eta talde lana bultzatzen da. Haietzako lan dibertigarriak dira.</p> <p>Eskola osoa inplikatzeari aparte, ondoko eskoletatik bisitak izan dituzte eta kasu batzuetan ere, haiek bezala, gai bat ardatza izanik zerbait antolatu dute..</p>
EMAITZEN AZALPENA	

G +	IRAKASLEAK, PARTE HARTZEA ETA INPLIKAZIOA: Zer eta nola?	
Esperientziaren izena	URTXINTXAREKIN JOLASTEN IKASTEN	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak:
	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza ez formala lantzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Jolas berriak ikastea - Hiztegi zehatza lantzea - Hizkuntza lantzea jolasen bidez - Esamoldeak ikastea
TESTU INGURUA:	<ul style="list-style-type: none"> - Bizkaiko Ezkerraldeko HH eta LHko Herri ikastetxea. - D eredu bakarririk. - Normalkuntzan aspalditik lanean dabilena. Lan handia egindako, eta egiten ari den eskola. - Ikasleekin Hizkuntza ez-formala lantzen urteetan dabilena. Klaustro inplikaturik. 	
DESKRIBAPENA	<p>Urtxintxa Bizkaiko taldearekin Klaustroko partaide askok 10 orduko formazioa egin zuen. Orain dela urte batzuk Klaustro oso izan zen antzeko formazioa egin zuena.</p> <p>Formazioa: jolasen bidez hizkuntza ez-formala lantzen. Ikastetxean bertan.</p> <p>Formazioa egin ostean: JOLASEGUNA proiektua sortu: hilean behin jolasorduan jolas antolatutako egitea. Ikasle nagusiei jolasak irakatsi, eta hauek dira txikien geletatik pasatzen dira, jolas horiek txikiei irakasten egun berezi horretan jolasteko.</p>	
EMAITZAK	<p>Momentuan emaitzak oso onak izan ziren. Hori dela eta, JOLASEGUNA sortu zen eta gaur egun indarrean jarraitzen du, baina denbora pasa ahala jolasak aurrera eramateko grina apaltzen ari da.</p>	
EMAITZEN AZALPENA	<p>Azken urteotan gero eta gehiago kostatzen zaigu horrelako formazioetan parte hartzea eta erronka berriak garatzea.</p> <p>Nekea nabari da. Eta emaitzak ez ikustearen etsipena.</p>	

G-	IRAKASLEAK, PARTE HARTZEA ETA INPLIKAZIOA: Zer eta nola?	
Esperientziaren izena	DENOK GARA HIZKUNTZA IRAKASLE: Bizkaieraren ezaugarriak lantzeko ariketa sorta	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak:
	<ul style="list-style-type: none"> - Klaustroa HNP programan inplikatzeari, eta denok hizkuntza irakasleak garelako barneratzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Bertoko euskalkiaren oinarritzko ezaugarriak ikasle (eta irakasleei) ezagutaraztea. - Arlo guztietako irakasleek euskara indartzeko ekimen batean parte hartzea.
TESTU INGURUA:	<ul style="list-style-type: none"> - BHko ikastetxe handi batean izan zen esperientzia. (600 ikasle, 60 irakasle) - Ikastetxea Ulibarri programan sartu berria, HNATA ere berria, gogo handiz baina esperientzia txikiz. - Institutu "klasikoa" garai hartan, non mintegi eta arloen artean koordinazio gutxi zegoen. Euskararekin konprometitutako irakasle dezente, baina beste asko, ez horrenbeste. - Bizkaiko D ereduko ikastetxe publikoa, eremu nahiko erdaldunean kokatuta. Ikasle gehien-gehienak, euskara batuan heziak. Bizkaieraren ia arrastorik ez ikasleen artean. Irakasleen artean, baten bat euskaldun zaharra, baina gutxi. 	
DESKRIBAPENA	<ul style="list-style-type: none"> - Testuingurua goikoa izanda, bazeukan zentzua bertoko hizkera nola edo hala lantzeak, Euskara ikasgai ez ezik, beste ikasgaietan ere. - Horrela bada, Institutuko HNTak koaderno bat prestatu zuen, 20 ariketatxo zituen. Ariketa bakoitza 5-10 minutuz egiteko, eta bertan bertoko euskalkiari buruzko ezaugarri bat lantzen zen: lexikoa, gramatika, esaerak, aditza apur bat... - Liburuxka irakasle guztiei banatu zitzaizkien. Proposamena ikastetxeko batzorde pedagogikoan egin zen, non mintegi buru guztiak zuzendaritzarekin biltzen ziren. - Proposamena hauxe izan zen: hilabete batez, egunero, lehen saioko lehen hamar minutuetan, gela guztietan ariketa bat egitea. 20 ariketa, 20 egun. Berdin zuen zein irakasle zegoen zein gelatan. Matematikakoa, gorputz hezkuntzakoa... Maila eta talde guztietan, DBHko 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara. - Batzorde pedagogikoan, eztabaidarik gabe, onartu zen. Eta egin, egin zen, urriaren 1etik 31a arte. 	
EMAITZAK	<p>TXARTO irten zen, argi eta garbi.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oso irakasle gutxi bete zuten eskatzen zitzaizkienak. HNPrekin inplikatuak ere, egun gutxitan egin zuten. Ahazten zitzaizkienak, laborategira joan behar zuten, liburutegira, azterketa egin behar zuten. Irakasle batzuek ez zekiten ezer. Informazioa ez zitzaizkien heldu mintegi burutzatik. Beste batzuek "ez enteratuarena" egin zuten. 	

	<ul style="list-style-type: none"> - Eta egunero ariketa egin zutenen artean, frustrazio moduko bat zabaldu zen, ikusita haiek zirela taldeko irakasle bakarrak hori egiten zutenak.
EMAIT ZEN AZALP ENA	<p>Faktore asko daude porrota azaltzeko. Besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> - HNAT eta euskara mintegiko irakasle baten “harrikada” izan zen esperientzia hori horrela egitea. Esperientzia polita eta interesgarria izan zitekeen, baina adostasun eta konpromisoa apenas saiatu zen lortzen. Euskara batzordean gutxi landu zen. Batzorde Pedagogikotik arineketan pasatu zen, alde zuzenetik ez zen egon kontakturik zuzendaritzarekin... - Antolaketa ere ez zen ona izan. Goizeko lehen saioa ez zen aproposa izan; ez ziren kontuan hartu ikasgai bereziak, gelatik kanpo ematen direnak... - Irakasle askorentzat HNP kontu berria zen. Ez zuten ulertu zer dela eta haiek, fisika kimika eman beharrean, bizkaierari buruzko ariketak egin behar ote zituzten

H +	GURASOAK: Nola eragin guraso euskaldunengan hizkuntza-jokaera konsistentea izan dezaten, hori da ikasleentzako erabilera normalizatuaren eredu izan daitezen. Nola eragin guraso erdaldunengan seme-alaben erabileran aurrera egiteko jarrera lagungarria har dezaten?	
Esperientziaren izena	<h2 style="text-align: center;">GURASOAK IRAKASLEON BIDEAN</h2>	
Helburuak	Orokorra: - Gurasoen euskararekiko jarrera positiboak aktibatzea.	Zehatzak: - Gurasoekin hizkuntzen ikaskuntzari buruz hitz egiteko baliabideak lortu - Interbentzio plan bideragarria antolatu eta aurrera eraman.
TESTU INGURUA:	<p>Ingurune euskaldunean kokaturiko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa. Herri txikia izan arren bertan Itunpeko Ikastola dago.</p> <p>Herrira etorkin asko inguratu dira azken urtetan, jatorri ezberdinetakoak baina gehien bat magrebtarrak eta pakistandarrak. Hauen haur gehienak ikastetxe publikora joaten dira.</p> <p>Gurasoek ikasleen erabileran eragiten duten faktore oso garrantzitsua dela konturatuak daude aspalditik baina ez dute asmatzen hauek euskarara hurbiltzeko modua.</p>	
DESKRIBAZIOA	<p>Ikasturte hasieran EBETE erakundeko Iñaki Eizmendirekin ikastaroa egin ondoren plana egin dute Haur Hezkuntzako gurasoekin interbentzio zuzena egiteko: Ikasturte hasieran, Euskararen egunean, Gabonetan, gurasoekin banaka egiten diren bileratan,</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haur Hezkuntzan gurasoei euskararekiko duten jarreraren garrantzia azpimarratzea da eta une bakoitzean zer egin ondo zehaztu eta adostu dute. - LH1 eta LH2 mailetan hizkuntza bat baino gehiago ikasteak dituen onurak azpimarratzen dituzte. - LH3tik LH6ra pertsonai ezagunek eta hauek erabiltzen duen hizkuntzaren garrantzia azpimarratzen da. 	
EMAITZAK	<ul style="list-style-type: none"> - Hasi berriak dira baina momentuz gurasoen parte hartzea oso ona izan da. - Gurasoen aldetik proposamen berriak egon dira. - Irakasleak oso gustura daude emaitzekin eta nabari da aurreko urtetako etsipena alde batera utzi eta lanerako gogoz ari direla. 	
EMAITZEN AZALPENA	<p>Emaitza onen arrazoiak zein izan daitezkeen galdetu ezkerro hauek aipatzen dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Guztien artean adostutako plan bat egin izana. - Maila bakoitzean zer egin daitezkeen argi izatea eta horri heltzea - Gauzak beste modu batera ikusteko kanpoko laguntzak izan duen garrantzia. 	

H +	GURASOAK: Nola eragin guraso euskaldunengan hizkuntza-jokaera konsistentea izan dezaten, hori da ikasleentzako erabilera normalizatuaren eredu izan daitezten. Nola eragin guraso erdaldunengan seme-alaben erabileran aurrera egiteko jarrera lagungarria har dezaten?	
Esperientziaren izena	GURASOEN FOROA	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak:
	<p>-Gurasoak euskararen inguruan ditugun esperientziak, kezka... partekatzea.</p> <p>-Gure seme-alabek euskaraz hitz egitea.</p>	<p>-Euskararen erabilera areagotzeko, eskola komunitatean eragin.</p> <p>- Foroan parte hartzen dugun gurasoen ardurak, nahiak, kezka... argitzea.</p>
DESKRIBAPENA:	<p>-Duela 5 bat urte Ulibarri programan eginiko neurketetan, gure eskolan, euskararen erabilera jaitsi egin zela ikusi zen. Normalkuntza batzordeak emaitza horiekin kezkatu, guraso foroa martxan jarri zuen. Hasiera batean, hiru guraso hasi ziren irakasleekin biltzen eta pixkanaka guraso gehiago batzen joan zen taldera eta esan dezakegu 25 bat gurasok parte hartu dutela. Esan, bertan parte hartzen duten guraso guztiek euskaraz mintzatzeko gai direla neurri batean edo bestean (Hala ere, erdal hiztunak ateak irekita dituzte). Foro hauetan, euskaren inguruan norberak dituen esperientziak, kezka, gozamenak... partekatzen ditugu, bai eta testu interesgarriak landu eta aztertu ere. Hilean behin biltzen gara eta Normalkuntzako teknikaria da foroa dinamizatzen duena. Iazko ikasturtean, bazegoen guraso talde bat foroan parte hartu nahi zuena baina beraien ustez ez zuten hizkuntza mailarik foroan parte hartzeko, orduan, bigarren guraso foroa eratu zen euskara maila apalagoa duten guraso hauekin. Helburu garbi batekin sortu zen bigarren foro hau, hasiera batean beraien lanketa egin eta denbora batean bi foroak batzea.</p>	
EMAITZAK:	<p>Foroan parte hartzen dugunon balorazioa oso positiboa da. Bertan jasotzen ditugun bizipen, emozioek... asko elikatzen gaituzte. Uste dugu, foro honen arrakastetako bat bertara joaten garen aniztasuna dela. Euskaldun zaharrak, euskaldun berriak, euskaraz ikasten ari direnak, euskaraz oso gutxi dakitenak... biltzen gara, baina denok helburu batekin: gure seme alabek euskaraz hitz egitea.</p> <p>Foro honen ondorioz ekintza desberdinak atera dira: Xabi Payarekin bi hitzaldi egin ditugu, bata, euskara hutsean herri guztiarentzat eta bestea, gaztelaniaz, eskolako gurasoentzat. 6 bat mintza-lagun talde ere sortu dira gurasoentzat, batzuk eskola orduetan biltzen dira, beste batzuk parkean umeekin batera...Euskara egunean ere arratsaldean festa bat antolatu da eskolan txokolate eta musikarekin.</p>	

H-	GURASOAK: Nola eragin guraso euskaldunengan hizkuntza-jokaera konsistentea izan dezaten, hori da ikasleentzako erabilera normalizatuaren eredu izan daitezen. Nola eragin guraso erdaldunengan seme-alaben erabileran aurrera egiteko jarrera lagungarria har dezaten?	
Esperientziaren izena	MOTXILA IBILTARIA	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak:
	<ul style="list-style-type: none"> - Ikaslek beraien aisialdian euskaraz ongi pasatu eta disfrutatzeke aukera izatea. - Ikasle zein familiak euskarazko materiala erabiltzen animatzea eta material hori ezagutaraztea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek motxila etxean daukaten astean behintzat, euskarazko materiala, pelikulak, musika, karaokea zein komikiez disfrutatzea. - Gurasoek seme-alabei euskarazko produktuak eskaintzea, euskaldunak izan ala ez izan.
DESKRIBAPENA:	<p>Gelaz-gela euskarazko produktu eta materialez hornituriko motxila bat osatu da. bertan,bi film, komiki bat, gurasoek eginiko euskarazko esamolde eta abestien liburuxka, musika CD 1, karaokea ... sartu dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> - ikasleek txandaka etxera eraman dute, bakoitzak astebete motxila etxean eduki duelarik. klasean zer gustatu zaion gehien, zer gutxien... komentatu dute. - proposamena gurasoen euskara batzordeak HNBarri luzatu zion eta batzordeak hartu zuen bere gain antolaketa. - honekin batera, guraso bileretan eta gabon aurretik zenbait gomendio luzatu zaizkie gurasoei, aisialdian euskarazko jarduerak egiten animatzeko zein gabonetan euskaraz oparitzen animatzeko. 	
EMAITZAK:	<p>Emaitzak: ikasleak oso motibaturik daude baina azkarregi da balorazio bat egiteko.</p> <p>Egia da zenbait materiala aukeratzeko ez dugula asmatu.</p>	

H-	GURASOAK: Nola eragin guraso euskaldunengan hizkuntza-jokaera konsistentea izan dezaten, hori da ikasleentzako erabilera normalizatuaren eredu izan daitezen. Nola eragin guraso erdaldunengan seme-alaben erabilera aurrera egiteko jarrera lagungarria har dezaten?	
Esperientziaren izena	GURASOAK EUSKARA IKASTEN	
Helburuak	Orokorra:	Zehatzak:
	<ul style="list-style-type: none"> - DBHko ikasleen gurasoak euskara jakitearen beharraz ohartaraztea eta euskara ikastea motibatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararekiko sentsibilizazioa eta atxikimendua suspertzea. - Euskararekiko dauden aurreiritziak lantzea. - Euskarak tresna bezala duen garrantziaz ohartaraztea (seme-alabek euskararekiko duten sentsibilizazio eta erabilpenean ...).
TESTU INGURUA:	<p>Eremu soziolinguistikoari dagokionez, eremu erdalduna eta maila ekonomiko baxua duten populazioa.</p> <p>240 ikasle eta 3 eredu ezberdinekin A, B eta D.</p> <p>Hiritik urrun dagoen auzo batean kokaturik, non etorkinen kopurua handia da; ikasleen %50a baino gehiago etorkinak.</p> <p>Helburu eta jarduera hau HNBren proposamena izan da. Ikasturteko Normalkuntza planean txertaturik baina ez zen ikastetxe mailan beste organo edo eta plan batzuetan txertatu.</p>	
DESKRIBAENA	<p>Udaleko Euskara Zerbitzuak ikastetxeekin bate ginez, gurasoak alfabetatzeko euskara ikastaroa eskaintzen zuen eskola ordutik kanpo.</p> <p>HNAT kidean Euskara Zerbitzuko teknikariarekin harremanetan ipini ondoren, eskaintza bere ikastetxera zabaltzea erabaki zuen</p> <p>HNBko kideak eskutitz baten bidez ikasleen gurasoak informatu zituen eskaintza honi burua eta izena emateko aukera ere luzatu zitzairen. Formakuntzak aurrera egin zezan gutxienez 9ko taldea behar zuen egon. 170 gurasoetatik 5 gurasok bakarrik eman zuen izena.</p> <p>Guztia HNBren eskutik bideratua izan da eta Klaustroaren edo eta beste organoen laguntza ia zen egon.</p>	
EMAITZAK	<p>Gurasoen izen emateak gutxieneko baldintza betetzen ez zuenez, bertan behera geratu zen egitasmoa. Emaitza honek ez zuen bigarren bueltarik izan, hau da, ez zen klaustro edo eta zuzendaritza mailan hausnarketa edo eta gogoetarik egin. Guraso elkartetik ez da harremanik eraiki HNBrekin eta ez da inolako erantzunik edo eta harremanik bideratu</p> <p>Ondorengo urteetan ez da gurasoen eremuan jarduera posible gisa aurreikusi.</p>	
EMAITZEN AZALPENA	<ul style="list-style-type: none"> - Motibazio eta sentsibilizazio falta hainbat eragileen eskutik; gurasoak, irakasleak, zuzendaritza taldea ... - Zuzendaritza eta irakasle taldeko babes falta. 	

Beste esperientzia

Bigarren idazketa (berridazketa) izan ez dutenak, baina bereziki interesagarri izan daitezkeenak. Bi DBHko ikasleekin egin direlako, beste biak gurasoekiko nahiko esperientzia berritzaile direlako.

Baliagarri iruditzen bazaizkizue, erabili!

E, Irakasleak, Hizkuntza Prestakuntza

IRAKASLEAK, HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA: Zer egin eta nola jokatu prestakuntza erabaki pertsonal izatetik erabaki instituzionala izatera igarotzeko, ikastetxean "Hizkuntza Kalitatea Ziurtatzeko Prestakuntza Plana" izatera ailegatzeko, alegia.

LEHEN LAN-SAIOA:

Esparrua aztertu, esperientziak oinarri hartuta. Faktore eragileak identifikatu.

- Esperientziak oinarri hartuta esparrua aztertu, faktore eragileen bila.
- Aintzat hartu esparruaren definizio osoa. Beharrezkoa iruditzen bazaizue, esperientziek edo kasuek islatutakoa zabaltze edo sakontze aldera, esparru horretan taldekideek ezagutzen dituzuen beste esperientziak ere aztertu
- Aztertzerakoan...
 - faktore eragile eraginkorrenak identifikatu,
 - arrakastarako gakoak zehaztu eta
 - ondoriok-ikasbideak atera
- Azterketa horretan proposatutako dinamikak baliatu: *Arrai Hezuraren Diagrama* eta *AMIA*

BIGARREN LAN-SAIOA,

ideia berrien bila: eragin esparru honetan jarduteko ideia berriak identifikatu, balioztatu eta garatzeari begira

KASU FIKTIZIOA: ELBIRA ZIPITRIA IKASTETXEA**TESTUINGURUA: IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK**

- Ikastetxearen datuak: D ereduak (duela 10 urte D eredu baina ez, aurretik B eta D ereduak izan zituen). Ikastetxe handi samarra 45 irakasle, gehienak beteranoak (45 urtetik gorakoak)
- Irakasle guztiak 2HE edo EGA dute, gehienek titulua duela 20 urte edo gehiago lortu zuten. Gehienok (30 inguruk) hizkuntza-hobekuntzarako zenbait jardueretan parte hartu ohi dute, izan IRALEko R ikastaroetan (liberazio dutenak) edo ikastetxean bertan antolatu dituztenak.
- Bada taldetxo bat halakoetan aspaldi sartu ez dena. Titulua lortu zuenetik ia ez du beste hizkuntza-prestakuntza jarduerarik egin (salbuespena duela 12 bat urte ikastetxean bertan IRALEko antolatu zenuten H100 ikastaroa: Euskaltzaindiaren arauetan egunean jartzeko. Klaustroak erabaki zuen denok egingo zutela, prestakuntza-orduetan, eta saio gehienetan agertu ziren). Horietako batzuk ez dute erraztasun handirik, gaitasuna gero eta herdoilduagoa dute, zenbaitetan kostatzen zaie adierazi nahi dutena adieraztea. Lan orduetatik kanpo ia ez dute euskara baliatzen.
- Baina irakasle gehienek badute irakasleriaren hizkuntza-kalitatearen eraginaren kontzientzia eta hizkuntza-hobetzeko zein alderdi didaktiko-metodologikoak lantzeko gogoak. Eta horretan aritu dira, gehienetan nork bere kasa.

ERRONKAREN DESKRIBAPENA

- Duela bi urte, Ikastetxeko Hobekuntza Plana lantzeko unean Euskarazko Hizkuntza Komunikazio Gaitasuna (HKG) hobetzea lehentasunen artean jarri zuten. Eta asmo horrekin zenbait lan ildo jarri zituzten martxan.
- Plana prestatzen ari zirela zenbait lankidek irakasleriaren hizkuntza-prestakuntzan eta hizkuntzen irakaskuntzarako prestakuntza didaktikoan ere eragitea proposatu zuten. Horien iritziz irakasleen hizkuntza prestakuntzarako 'ikastetxeko plana' jarri behar zen abian: prestakuntza jarduera horietan parte hartzea ezin zen erabaki eta egitasmoa indibiduala izan; ikastetxeko prestakuntza planaren ardatz bat baizik, irakasleriaren profesionalizaziorako neurria baita.
- Gaiari buelta batzuk eman zizkioten eta ez zuten argi ikusten nola planteatu eta gauzatu: nola lortu hizkuntza-prestakuntzarena 'erabaki eta plangintza instituzionala' izatea, denei begirakoa eta loteslea? Zer nolako prestakuntza sartu: nolako edukiak, nolako jarduerak...?
- Une horretan bidea argi ikusi ez, eta hurrengo Hobekuntza Planean horri heltzea erabaki zuten. Bitartean, HN Batzordeak aukera hori sakonki aztertuko zuela eta bidea irudikatzen joango zela erabaki zen.
- Datorren ikasturtean Hobekuntza Plana berrikustea tokaten da. Gainera ikastetxea Hizkuntza Proiektua berrikusten ere arituko da, segur aski. Horrek oinarri sendoa eskaini diezaioke egitasmoari, Hizkuntza Proiektua Prestatzeko Gidak 'Irakasleriaren prestakuntza' proiektuaren atal bat izango dela aurreikusten baitu. (Aurkeztu berri den Curriculum Dekretu berriak hori berresten du 24.3. artikuluan: *"Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan sartzen dira: (...), irakasleak prestatzeko aurreikusitako ekintzak (...)"*)

SAIO HONETAN EGIN BEHAR DUZUENA

- Sartu Elbira Zipitria Ikastetxeko HN Batzordekideen larruan eta jarri plan hori diseinatzeko eta aurrera ateratzeko ideia eta estrategien bila.
- Pentsatu, besteak beste, honako puntu hauetaz:
 - **Zer nolako edukiak eta jarduerak** aurreikusten dituzue irakasleen prestakuntza-plan horretan. Esaterako...
 - Ikastetxean bertan, prestakuntzarako orduetan, antolatu daitezkeen jarduerak (IRALEko deialdiaren barneko H, I edo antzeko ikastaroak). Hala balitz, halakoetan zer sartu? Denontzako baliagarri diren jarduerarik bada ala profil ezberdinei erantzungo dieten bizpahiru jarduera paralelo? Jarduera zehatzen bat garrantzitsu iruditzen zaizue?
 - Hauetaz gain, liberazio duten IRALEko ikastaroetan parte hartzen joateko (nork bere beharren eta interesen arabera) plangintzaren bat ere aurreikusiko dugu? Hala balitz zer-nolako lehentasunak jarriko genituzke (zein irakasle profiletzako zein jarduera?)
 - Hizkuntza-prestakuntza ez ezik, ikasleriaren Euskarazko HKG garatzeko lagungarri diren bestelako gaitasunak eta trebetasunak lantzeko jarduerak antolatuko ditugu.? Esaterako prestakuntza didaktikoa, hizkuntza-interakzio egoerak dinamizatzeko prestakuntza, ikasleekin Hizkuntza Jarrerak eta Jokabideak (HJJ) lantzekoa edota irakasleok HJJ proaktibo eta asertiboetan trebatzekoa?
 - Gaia aurrera ateratzeko ibilbidea:
 - Ikastetxean prestakuntza-planari hausnarketa egiteko eta plangintza hori lantzeko eta onartzeko proposatuko zenuketen bidea
 - Erabakitakoa sozializatzeko eta aurrera ateratzeko estrategiak eta bideak: Motibazio- edota pertsuasio-estrategiak baliatu? Zeintzuk eta nola? Betearazteko estrategiak baliatu? Zeintzuk eta nola?
 - Plangintzaren jarraipena, balorazioa eta doikuntzak egiteko bideak